

tüpi-ttapa

1996ko ekainak 20 • 184. zenbakia


Kirolak

**Baxtango emakumezkoen
eskubaloit taldea
Nafarroako txapeldun**



**INTEGRAZIO ESPERIENTZIA
ABERASGARRIA ELIZONDON**

**Zaborra guztion zeregina da,
Zuk ere parte hartu.**



**La basura es una tarea de todos,
Por ti que no quede**

DATUAK.....

❖ *Maier, Amaia, Gorka eta M^a Angeles Elizondoko Laboralean aritu dira azken lau urteotan.*

❖ *Arras praktikoak izan diren ikasgaien bitartez, eguneroko bizitzan ahalik eta hobekien moldatu ahal izateko prestatu dituzte.*

❖ *Eskolako bertze ikasleekin eta eskolaz kanpoko jendeekin izan duten tratua eta hartu- emana arras aberasgarria izan dela baloratu dute irakasleek.*

❖ *Datorren urteari begira oraindik ez dago garbi zer egingen duten.*

Elizondoko Hezkuntza Bereziko taldea: «Zenbat eta harreman gehiago izan orduan eta baztertze guttiago»

Maier, Amaia, Gorka eta M^a Angelesek aurten emanen diote despedida eskolari azken lau urteotan Elizondoko Laboralean aritu ondotik. Down sindromea dute lauek eta honat etorri aitzin bertze eskoletan ibiliak dira. Hemen, talde berezia osatua zuten, Hezkuntza Bereziko Taldea izenarekin, eta hor, eguneroko bizitzan ahalik eta hobekien moldatu ahal izateko gauza praktikoak ikasi dituzte. Leharozko ikastetxean ere badituzte bertze 5 ikasle 16 urteak oraindik bete ez dituztenak. Holako egoeran dauden gazte gehienak eskolatuak daude Hilario Larrañaga eta Maite Alsuia irakasleek ustez, «20 urtetik beharokak behintzat, seguru!. Kasu bereziren bat edo beste egonen da, etxean edukiko dituztenak, bainan gutxi!».

ZER EGITEN DUTE EGUNEZ EGUN

Astelehen eta ostiralean Poskoneara joaten dira hango Tailer Okupazionalan lanean aritzera. Eta gainerako egunetan, eskolan aritzen dira, gauza praktikoak ikasten, matematika eta hizkuntza trebatzen, gimnasia egi-



Maite eta Hilario irakasleekin batera, Gorka, Amaia eta Maier

ten... «Asteazkenetan, adibidez, menua prestatzen dugu. Sukaldea oso ongi datorkigu Elizondoko dendetara joan, gauzak eskatu eta ordaindu, eskolara etorri eta menua prestatu... azken finean, gauza pila trebatzeko balio digu, eskolatik kanpo eta barnean ere».

ETA HELDU DEN URTEAN, ZER?

Laboralean pasatu dituzten urte guziotan suposatzen da prestatu egin direla Tailer Okupazional batean sartzeko, «eta esate baterako Poskonean 7-8 orduz aritzeko» dio Hilario. «Gero, beste alternatiba batzuk ere agertu dira Iruñetik eta Europako Ekonomi Elkartetik, eta hauen arabera, jende hau tailer okupazionalan sartu beharrean ahaleginak egingo ziren tailer nor-

maletan sartzeko monitore baten laguntzarekin, bainan tira, errealitatean zaila izanen da gauzatzea» gaineratzen dute irakasleek. Dena den, oraindik ez da erabakirik hartu.

INTEGRAZIOA, ONGI

Eskolako bertze ikasleekin lortu duten integrazio maila arras ona izan da irakasleen ustez, «batez ere sukaldean eta gimnasia. Zenbat eta harreman gehiago izan orduan eta baztertze gutxiago izaten baita!».

► *«Sukaldea oso ongi etorri zaigu Elizondoko dendetara joan, gauzak eskatu eta ordaindu, eskolara etorri eta menua prestatu... azken finean, gauza pila trebatzeko balio izan digu»*

REGISTRO GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.200 ALE

DIRIGITZAILEA: TTIPI-TTAPA KE

HERRIKO ETXEO PLAZA, 1

31780 BERA

TFNOA: 63 11 88

FAXA: 63 12 91

Redaktorea: Joxemanuel Iri

Publizitate: Miren Kar

er Tolosa. Erredakzio: Aitor

erena, Joxemanuel Irigoien.

Erredakzio: Amaia Goia.

Erredakzio taldea: Pello Ape

erena, Juainas Paul, Kristina

erena, Bittori Telletxea.

Erredakzio: Joseba Azpiroz,

erena, Arozena, Juana Mari

erena, Ainhoa Mutuberria, Iban

erena, Txema Aldabe, Pello Etxe

erena, Txema Urroz, Patxi Otxan

erena, Ixabel Maia, Josune Etxe

erena, Pablo Mendiburu, Joseba

erena, Alizia Olaizola, Margari

erena, Koro Irazoki, Mixel

erena, Jacquelina, Elixabet

erena, Garbiñe Maiz, Oskar

erena, Alberto Sansiñena,

erena, Aitor Arozena,

erena, Tina Boan.

Erredakzio: EHNE Nafa

erena, Patxi Lasa, Mikel Bezunar

erena, Joxe Javier Etxeberria,

erena, Txema Zabala...

Erredakzio: Graficas Ona.

Erredakzio: tipitapa ez du bere gain har

erena, derrigorrez, aldizkarian adie

erena, rako erranen eta eritzien eran

erena, izunik.

Erredakzio: Laguntzaileak: Bera,

erena, Goizueta, Areso, Baztan,

erena, Lazubi, Zugarramurdi eta

erena, rako udalak, Bortzirietako

erena, rako Mankomunitatea,

erena, erretrako Zerbitzu Mankomu

erena, nitea, Zugarramurdiko Akelarre

erena, rarte...



Idizkari honek Nafarroako
bernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Doneztebeko Norfress lantegiko nagusiak ateak itxi eta aldegin zuen

Bagenekien gaizki zebilela bainan ez horrela akituko zenik



Jagoba HUALDE
Langile-ohia. Zubietako

Joan den urteko otsailean hasi nintzen lanean behin-behineko kontratu batekin, iraupen jakinik ez duen kontratu batekin. Dena duen, ixteko momentuan 9 langile geunden, eta sekretariarekin hamar, bainan hori lehentxeagotik egin zen ateri. Bederatzi hoietatik bat eratsundarra, bi oiztarrak, Legasa, Sunbilla, Donamaria eta Doneztebeko bana, enkargatua Pasaiakoa eta ni nerone. Hoietako lau ezkonduak dira, eta denak 40 urtetik azpikoak.

Nagusiak asteburu hartan lantegian zegoena hartu eta eraman zuenetik, gauza gutxi aurreratu dugu. Hondarribian, nagusiaren etxe aurrean egon ginen pankarta batekin, berekin egon nahi genuela eskatuz, bainan berak Ertzainak deitu eta automobila hartu eta aldegin zuen.

Berrikiago Irunen, ELA sindikatuauren egoitzan bilera egin zen nagusiaren ordezkariarekin, bainan hor ere ez zen deus onik lortu. Gauzak horrela, oraindik ez dakigu zer pasatuko den zor digun hilabete t'erdiko jorنالarekin.

Lurra koste ttikienetan berreskuratu eta aitzinera segitu nahi dugu



Miguel SAN MIGUEL
Doneztebeko alkatea

1991n, ni Herriko Etxean sartu berria nintzela jarri zen martxan lantegia. Orduan bertze nagusia zuen. Orduan Malerrekako Industria Mankomunidadeak saldu egin zion lurra eta 12 urteko iraupena duen hitzarmena sinatu genuen bi aldeak, lantegiko nagusia eta mankomunidadeak. Hitzarmen horretan, bertze gauzen artean, kontutan hartzen da lantegia 8 hilabetez itxirik egonen balitz lurra berriaz Mankomunidadearen eskuetara itzuliko dela kondizio jakin batzuetan.

Orain, nahiz eta zortzi hilabetezko tartea izan, hasiak gara gauzak begiratzeko; hitzarmena xeheki aztertu, hondasunak ze karga dituen ikusi... eta horrela, ahalik eta dokumentazio gehiena bildu eta ze aterabide ikusten zaion aztertzeko. Bertzalde, duela hilabete bat sinatu genuen bertze operazio bat Iruñean Norfress-ek zuen lurraren zati bat bertze enpresa berri bati saltzeko. Kasu honetan ere, 5 urteko epea jarri dugu hasieran jarri diren kondizioak betetzen diren edo ez ikusteko.

Pertsonak eta lanbideak



Arantxa ARREGI
Garapen Agentea

Oraingoan alde batera utziko ditut proiektuen planak, finantziarioak, bul-tzatzaileak eta mugak, eta herrien garapenerako funtsezkoa den elementuaz arituko naiz: *Gizakiaz*.

Zalantzarik gabe, gaur egun garrantzitsuena ez da batek ikasi duena, zertan ari den baizik. Eta lana bilatzerakoan, geure baitan dugun afizio, nahi eta gogoak oinarritzeko erreferentzia dira. Horrela, bada, gutti dira profesio espezializatuak aukeratu dituztenak zentzuzko lanbideak deitzen direnekin konparatzerakoan. Eta are gehiago, dagoen zentzaduraren eskasia kontutan hartzen badugu. Pertsona bakoitzak bere baitako barne-mundua arretaz aztertu behar du bere abildadeak ezagutu eta edukirik gabeko titulazio eta lanbideetatik aldegitiko. Orain, bainan batez ere etorkizunean, enplegu egonkorren kontzeptua sakonki aldatuko da. Etengabeko formakuntza eta inguruko kultura eta lurraldea funtsezkoak izanen dira enplegatzeko.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
 - Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

BOTA BERTSOA



Euskal Herriko Eskolarteko bertsolari txapelketa

Erika LAGOMA

Neurria: Hamarreko Haundia

*Gipuzkoatik ta Bizkaiatik
bazeuden sei bertsolari
Nafarroatik bi geunden baina
gu aurkitzen ginen alai.
Jakin nahi genuen nor izango zen
txapela irauzteko gai
lehen bertsoa bota egin nun
bainan ez nengoen lasai.
Gainontzekoek kantatu zuten
ta gainera ez nola nahi.*

*Mikro aurrean paratzea da
neretzat nahiko astuna
jendea berriz zuri begira
hau egoera iluna
eta eskerrak ondoan nuen
Ekhine nere laguna
bainan gehien bat nere barnean
hauxe zen sentitu nuna
Hainbeste izar alboan eta
ni berriz ezezaguna.*

IRAKURLEAK MINTZO

Osasunbideako Larrialdi Zerbitzuaren funtzionamendu beldurgarria dela eta

Ettxalarren nago. Gaueko 11,30ak dira. Ordu laurden bat daramat lotan oinaze haundi batekin ernatzen naizenean. Iztuia, izerditan eta amasik hartu ezinik, saiatzen naiz jeikitzen. Nekez lortzen dut, mina hagitz haundia da eta zailtasunak ditut orain ere arnasa hartzeko.

Iruñeko Larrialdi Zerbitzura deitzen dugu, anbulantzia eskatzeko. Medikua bidaliko dutela erantzuten digute. Nik, ahal bezala, telefonoa hartzen dut, erizaina naizela eta, nahasmenaren barnean, sintomabatzuk ezagutzen ditudala erraten diet: sabela gogortua, oinaze sakona, izerdi hotza, etab...

Ordu laurdenaren buruan berriro deitu eta Lesakako Osasun Zentruko medikua lokalizatzen ari direla erraten didate. 25 minutu pasatu eta oinazea ezin aguantatuz, automobila hartu eta Irungo Ospitalera joan nintzen. Estomaka zulatua dudala erraten didate.

Geroztik denbora pasatu da eta momentu honetan sendatzen ari naiz. Halere, ospitale-tik ateri nintzenetik, egoera honek sortutako segurtasun eza ez zait burutik joaten. Eta honexegatik burutapen hauek publiko egitearen beharra: Osasunbideako arduradunak,

normala iduritzen zaizue hil ala biziko larrialdi baten aintzinean:

1) Iruñetik telefonoz mediku batek egindako azterketaren menpe egotea?

2) Lesakako Osasun Zentruan guardian dagoen medikua Iruñetik lokalizatzea, jakinik hau deitzen duten tokira joan behar izaten duela?

3) Diagnosiaren ondotik eta beharrezkoa baldin bada anbulantzia lokalizatu behar izatea, ospitalera joateko?

Herri tikietan hamar minutura ospitalerik ez dugunez, Osasunbideako egoera hauek seriozki aztertu beharko lituzkeela uste dut eta arazo hau moldatzea nere eskutan ez dagoenez, horra sugerentzia batzuk: Zergatik ez zuzen zuzenean guardiako medikuari deitu, Iruñera deitu behar? Zergatik ez dago anbulantziarik Lesakan, berehalako lekualdatze baterako?

Osasunbideako arduradunak, sinetsi, aldaketa hauekin lasaiago lo egingen genuke. Hurrengoan ez dut Iruñera deituko!

MARIA ASTIER. ETXALAR.



Zaharrak ere euskaraz!

Akautzear dago Berako zaharren egoitza berria. Ez dago zalantzarik hauen beharretara egokituko dela eraikina eta Berako herrian zegoen pre-


mietako bat beteko dela (ea noiz betetzen den gazteen-tzako etxebizitzarena). Hala ere, eraikuntza panpoxo horretan, bertze behin, Nafarroako Gobernuaren eta Berako Udalaren axolagabekeri berri bat ikusi ahal izan dugu. Hizki handiz jarri diote izena zahar etxeari, baina gure hizkuntza baztertu. Gaztelaraz bakarrik agertu da. Zaharrek ez al dute euskaraz bizitzeko eskubiderik? Edota euskaldunek ez dute zaharretxean sartzerik? Euskararen aldeko politika tinco bati ekin beharra sumatzen da oraindik, eta Bortzirieta Euskara Mankomunitateari, dirua bakarrik eman behar, zergatik ez elkarrekin lanean ari? Denen onerako izango delakoan nago.

JON ABRIL. BERA.



Lamixine BATen oharra:

Iragan apirilaren 20an eta maiatzaren 18an GAZTE JOKOAK 96ko ekitaldien barnean aurkeztu genituen ikuskizunetan parte hartu zuten guztiei gure esker ona luzatu nahi diegu hemendik: Gure Txokoa elkarte, Gazte Jokokoeko talde parte hartzaileak, abesbatza, trikitilariak, akordeolariak, erraldoiak, txistulariak, gaiteroak, Gure Txokoa



LESAKA



BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

dantza taldea, Uxua emakume taldea, Pui, Bidaxka eta Zizka ostatuak, Biserh eta Gutariko Bat musika taldeak, Angel Mayordomo eta bere zaldia, Eneritz Mitxelena eta Julen Zelaieta bertsolariak, Altzateko bizilagunak, Jon Dozagarat, Manolo Taberna, "Maikel", Rikardo, Beñardo, Patxi eta Verkoleko bidoiak, "indartsuak", Berako Udala eta modu batean edo bertzean ikuskizuna egiten lagundu diguten guztiei. Zuen hasiak badu fruiturik. Eskerrik asko.

BERAKO LAMIXINE
ANTZERKI TALDEA



Karta irekia UPNri

Nafarroak, bertze behingoz, UPNko buruzagien neurritz kanpoko ateraldiak jasan behar izan ditugu Euskal Herria osatzen duten bi komunitateren arteko organo iraunkorraren sorrera bezain gai natural batean. Tristeza da alderdi politiko baten ondare ideologikoa izaera "anti-euskaldunean" oinarritzea eta bere sorrera nazionalismoaren aurkako borrokari lotua egotea. Izan ere, beraiantzat nazionalismoa gizartearen dako izurrite edo pozoina bertzerik ez da. Ez dute onartu nahi Nafarroak duen

errealitate soziala, ez dauden nafar-espainolak bakarrik. Bertan bizi gara, eraberean, euskaldunak sentitzen garenak eta, euskaldunak sentitu gabe, Elkarte Autonomoko bizilagunekin eroso daudenak. Auniz gara, bien arteko proiektu baten banean egonez gero, guztiontzat mesedegarria izanen dela usate dugunok. Ez naiz integrazioaz ari, ez horixe!, elkar osatzeaz, harremanak estutzeaz arinaiz... eta norberaren izakera galdu gabe, Europa izena duen errealitate horretan konpetitiboak izateko elkarrekin lan egiteaz.

Zergatik Nafarroa-Euskadiko Elkarte Autonomoa eta ez Errioxa edo Hueskarekin? Komunitate bakoitza nahi duenarekin akordioak egiteko aske baldin bada ere, bistan da Nafarroa, Euskadiko Elkarte Autonomoa eta Iparraldeari gauza ugari elkartzen gaituztela. Hizkuntza, ohiturak, folklorea, kirola, gastronomia, historia... bera dugu eta elkar ulertu eta gure interesak elkarrekin defendatu behar ditugu. Harremana normaltasunez eta naturaltasunez hartu beharko litzateke. Izan ere, bertze arlo aunitzetan harremanak ditugu eta euskal diputazio ezberdinak

(Nafarroakoa barne) elkar lanean ari dira: Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia... Nahiz "Estatutuak" zein "Amejoramentuak" hurbilketarako eta lankidetzarako mekanismoak aurrikusten dituzten, elkarrekin lanean ari gara "Mugaz gaineko Elkarlan Protokoloetan", Pirinioetako (Akitaniarekin), Erregioen Batzordea,

OHARRA:

*Azken egunotan hartu ditugun gutun multzo haundiaren-gatik, aldi hontan Erreportairik ez argitaratzea erabaki dugu idatzi hauek zaharkituak gelditu ez daitezela. Gogoratu, eritzi ezbedinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta ENAaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea.*

Europako Erregioen Batzordea (ARE), Arku Atlantikoa, SEA, ARFE,... Eta zer erranik ez, Gipuzkoarekin mugakideak garen herrietan ditugun elkarlan komenioak, hezkuntza, osasuna edo garraio arloetan, bertzeak bertze. Bistan da elkarlanarena ez dela kontu berria eta ez dut ulertzen zergatik plazaratu den honelako polemika ergela. Elkarlan organo honekin ez da deus berririk eginen, era naturalean elkartzen gaituzten loturak estutu baizik. Ageri denez, hau onartzen ez duten bakarrak UPNkoak dira. Nik, behingoz iragatik salto egitea eta orainera bueltatzea eskatuko nieke. Aldaketa denok eskertuko genuke, Nafarroak ere bilakaera hori izan baitu.

JULIAN YANCI MITXELENA
ENA: 72.697.875
LESACA



Asmo txarreko salaketa bat eta haren manipulazio informatiboa

Idazki honen bidez nire aurka egindako eraso bidegabe bat salatu nahi dut. Doneztebeko Javier Ostolazak gezurrez eta asmo txarrez betetako salaketa

bat aurkeztu zuen nire aurka. Hori gutxi balitz 'Diario de Navarra' egunkaria eraman zuen Hezkuntza Saileko erabakia ezagutu gabe. Egunkari honek gaia haren "interesekoa" zela ikusita, dena borobildu eta albisteak baieztatu gabe argitaratu zuen. Artikulu horretan ez zuten nire iritzia kontuan izan eta gainera hurrengo egunean deitu zidaten telefonoz galdetzeko "ea idatzi zutena egia zen". Eraso hauen aitzinean ni inolako defentsarik gabe gelditu naiz. Hezkuntza Departamentuko aitzinean erakutsi dut nik ez dudala ezer txarrik egin, nire betebeharrak egin besterik ez. Salatu nahi dut Javier Ostolazaren jarrera, inolako frogarik gabe, Hezkuntza Saileko erabakia ezagutu gabe eta ni ezagutu gabe, niri eta nire familiari egingako kalteagatik. Eraberean, 'Diario de Navarra' ren manipulazioa eta profesionaltasun falta salatu nahi dut, egin didaten desprestigioa berreskuratzeko. Bukatzeko animatu nahi dut Beatriz Ostolaza, 'Tolator' ren alaba, etxeok utzita klasera etortzen denean ongi etorria izango delako.

MARTIN IBARRA MURILLO
DONEZTEBEKO IKASTETXEKO
PLASTIKA IRAKASLEA

PIKABEA

Molinero drogerian galdetu

pinturak
Etxe barneko hezetan eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • **BERA**

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. - Fax: 948. 63 10 27

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Diario de Navarra 96-V-31

«Ez gaude ados intsumisoei ezarritako kartzela zigorrarekin ezta Zigor Kode Berrian azaltzen diren inhabilitazioekin».
Lekarozko Irakasleak
Diario de Navarra 96-V-31

ez galtzea falta da».
Valentin BARRAGAN
Baztandarra
Diario de Navarra 96-V-31

«Arraiozko Erregine dantza berreskuratzeko lana ez da gogorra izan, hasieratik arras laguntzaile onak izan ditut eta. Orain, heldu diren urteetan tradizio mantentzea eta berriro

◆ **Bigarren eskukoa edo berria?**

- ❖ Berria, dudarik gabe.
- ◆ **Motoak edo bizikletak?**
- ❖ Bizikletak, kirol pixkot egiteko.
- ◆ **Arrantza edo ihizia?**
- ❖ Ihizia politagoa da.
- ◆ **Bestetan zer duzu gustukoan?**
- ❖ Pilota partiduak, musika eta aizkora apostuak.
- ◆ **Nolako umorea gustatzen zaizu?**
- ❖ Originala eta bapatekoa.
- ◆ **Txisteak kontatu edo aditu?**
- ❖ Aditu, kontatzeko gutti balio dut.
- ◆ **Mendia edo hondartza?**
- ❖ Mendian oinez ibili.
- ◆ **Zein da bezero edo kliente hoberena?**
- ❖ Segidan pagatzen duena.
- ◆ **Emakumeekin zer da hobe, amua edo sarea?**
- ❖ Hori eguraldiaren arabera.
- ◆ **Konpontzeko, zer nahiago, segadora edo motozerra?**
- ❖ Motoak nahiago.
- ◆ **Egia al da Vespa duenak neska baduela?**
- ❖ Hori gezurra da.
- ◆ **Pertsonarengan gustatzen zaizun bertutea?**
- ❖ Aurpegira erratea erran beharrekoa.
- ◆ **Eta guttien?**
- ❖ Inbidia.
- ◆ **Zuk egin galdera bat?**
- ❖ Donezteben zergatik egiten da euskaraz hain gutti?
- ◆ **Erantzuna?**
- ❖ Nere kasuan horretaz ez naizelako kezkatu.



Mitzel LAKANBRA
Mekanikoa
Doneztebe

MASAIA eta BIZKORTZE ARIKETAK

Txomin Irazoki (fisioterapeuta)

✂ **MASAIA:**

- Minerako eta zirkulaziorako
- Zerbikal edo garondokoa eta lunbarrak
- Hanka eta besoetan

✂ **BIZKORTZE ARIKETAK:**

- Trafiko eta lan istripuak
- Kirol lesioak
- Belaun eta kaderako protesiak

Tel. 631391 - 908.576388
Eztegara 20, behea • **BERA**

SAROBÉ okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

AYLA ARGAZKILARITZA



- Estudioa
- Erreportaiak
- Ezkontzak
- Argazki materiala
- Fotokopiak
- Bideoa
- Markoak



Bixente Taberna
Bidasoa 8
BERA ☎ 630075

Dia




Autozerbitzua deskontua

FROGATUTA DAGO!

DIAN EROSIZ URTEAN
95.000 PEZETA BAINO
GEHIAGO AURREZTUKO
DITUZU.

URDAITEGIA ETA
FRUTADENDA PREZIO
HOBERENETAN



Ireki
berria

Dia %

Eztegara Pasealekua, 6 • ☎ 631403

BERA

Dia %
Labradorarako
lixiba, 2 l.

64.º

Dia %

Dia %
Esne osoa
Brick 1 l.

74.º

Dia %
Micro Ecopack
garbikaria, 2k.

359.º

Prezio
bakoitza
eskaintza
bat da

Pepsi Cola
2 litro

139.º

Buckler Sin
250 ml.ko
6 botileko pak.

259.º

Santa Ana
patata frijitvak.
Matutano 170 gr.

125.º

Atun xuria oliotan
'Rianxeira'
91 gr.ko 3 latako paketea

165.º

Danone jogur
naturala (1),
125 gr.

24.º

* Eskaintza 96/7/1 arte baliagarria, akats tipografikoa izan ezik edo produktuak agortu arte

Ikastolan DBH emanen den edo ez ofizialki argitu gabe segitzen du

Eraikuntza berria bukatu arte eta Labiagak DBH non eman nahi duen argitu arte ez du erantzunik emanen Gobernuak

AITOR AROZENA

Zenbait komunikabideetan agertu denez, Nafarroako Gobernuak ez dio baimenik eman Labiaga ikastolari, bere zentruan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ezartzeko, horretarako instalaziorik ez omen duela. Hezkuntza Sailarekin harremanetan jarrita, eraikuntza berria bukatu arte eta ikastolak DBH eta Lehen Hezkuntza non emanen dituen argitu arte ez da jakiterik baimekin izanen den edo ez.

Ikastolako zuzendariak erran digunez, "komunikazio ofizialik ez da ailegatu ikastolara, beraz, ez dago berririk". Labiagak berriki obraren zertifikazioa eraman du Nafarroako Gobernura. Eraikuntza lanak uztailean bukatuko dira, etxegileak honela ziurtatu baitio ikastolari eta honela, "irailean kla-seak eraikuntza berrian hasiko dira".



Besta Berri egunean ederki apainduak ageri ziren herriko karrikak

Arg.: Bixente Taberna

Epaiketa

Jose Luis Sebastian 'Sebas' beratarrak astelehen honetan, ekainak 17, epaitu dute Madrilgo Epaitegi Nazionalan. Hainbat herritar hurbildu zen Madrilera euren elkartzuna adierazteko.

Gure Txokoak denboraldia agurtuko du ekainaren 28an

Ekainaren 28an, arratseko 8etan, bokalia guzien artean eginen den bilera batekin akabera ofiziala emanen dio Gure Txokoa elkarteak aurtengo denboraldiari. Honek ez du erran nahi, ordea, udan ekitaldirik egin edo antolatuko ez dituenik. Errate baterako, San Esteban bes-

tetako kirol eta kultur ekitaldi gehienak elkarteak antolatuko ditu. Honetaz gain, igeriketa, tenis eta txirrindularitza denboraldiak udan burutuko dira eta dantza taldea ere indartsu ibiliko dira urtearen tenore honetan. Aurtengo plangintza ere osatua du Gure Txokoak.

ttipi-flash

◆ Toki-Ona institutuak

350.000 pezeta jasotu Nafarroako Gobernuak Hezkuntza sailetik Parisko Lycee Honore de Balzac zentroarekin elkartrukaketak eta topaketak egiteko.

◆ Mendi irteera

Igande honetan, ekainak 23, Agerra mendi taldea Pirineotara joan da, Bisaurin mendira (2.670m). 5,30etan aterako dira egoitza eta autobusaren prezioa 1.500 helduoz eta 1.000 pezeta ttikientzat.

◆ Hamasei Eroak

musika taldea, lehen *Free Spirit Jazz Band* zena gogor prestatzen ari da. Uztaileko asteburu guzietan emanaldiak izanen dituzte.

GOZOTEGI-JARONE

Altzate, 19 • 630786 • BERA

BOTXO
ostatua

Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA

GANIX
Tailerrak

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

Iturlandeta 9 • 630669 • BERA

LABE ZAR

© 631076 • BERA

ZALAIN
J A T E T X E A

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Zalain Auzoa
© 63 11 06
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

J. RAMOS

Zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditud

© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

Lesaka

ttipi-flash

♦ **Josefina Sagardia**

Kasino jatetxeko etxekoandre eta sukaldaria, Izokinaren Kofradiako ohorezko kide izendatu dute Irunen.

♦ **Igantzirako**

bidea konpontzeak 35.679.930 pezetako aurrekontua du. Udalak subentzioa eskatu dio Nafarroako Gobernuari eta honek estaltzen ez duena, Lesaka eta Igantziaren artean ordainduko da erdi-bana.

♦ **Urrezko Ezteiak**

Asteartean omendu dituzte 50 urte espustuak bete dituzten Jose Juan Portu-M^a Jesus Etxabide, Benito Tainta-Ignacia Pikabea eta Jose Antonio Mujika-Dolores Bergara.



Ekainaren 1ean Kopa txapelketa eskuratu ondotik pozik ageri ziren Beti Gazteko jokalaria eta Donostiako Herrera futbol zelaira hurbildutako jarraitzaileak

Arg.: Fidel ORDOKI

Futbol zelai berriaren proiektua onartu du Herriko Etxeak

Aurrekontua 96.642.346 pezetakoa izanen da

AITOR AROZENA

96.642.349 pezetako aurrekontua duen futbol-zelai berriaren proiektua onartu du Herriko Etxeak aho batez. Proiektua Pedro Pastor arkitektuak idatzia da.

Orain, lanen adjudikazioa egitea falta eta, ondoren, lau hilabeteko epea izanen da lanak akabatzeko.

Proiektua ahobatez onartu bazen ere, HKB

proiektua egiteko eraman den prozedura kritikatu zuen "ez zaigulako aukerarik eman horretan parte hartzeke". Eraberean, Udalarri dagokion kostua jeisteko, "bertze finantziabideak ere aztertu behar direla" adierazi zuten. Alkateak, bere aldetik, "proiektuaren erredakzioa pleno honek talde tekniko bati eman ziola eta talde horrek

gero futbol zelaia erabiliko dutenekin, Beti Gazterekin alegia, kontaktua osoa izan du" erantzun zuen, proiektua finantzatzeko bertze legezko modurik ez dagoela gaineratuz, "Nafarroako Gobernuaren laguntza eta Udaletxearen aportazioa". Eztabaidak luze eman zuen oraindik, baina azkenean, udal talde guzietan aho batez onartu zuten

proiektua.

Bertzalde, futbol gaiekin segituz, Beti Gazte talde nagusiak denboraldi historiko bati bukaera eman dio.

Preferenterako igorera eta liga lortu ondotik, ekainaren 1ean, Kopa ere eskuratu zuen, finaleko luzapenean Zarautzko Antoniano taldea garaituz. Bai liga, baita kopa ere, lehen aldiz daude Beti Gazteren esku.

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

TXIRULA
Albistor, 39-K • 627542 • LESAKA
bitxikeriak • opariak • enmarkazioak

LEGARRA
Legarrea, 9 • 63 70 30 • LESAKA

INPRESOAK
TRUKE LETRAK
MEDIKU ZIURTAGIRIAK
NAN ESKAERA
AZKEN BORONDATEAK

UDAKO ORDUTEGIA
Goizeko 9etatik 13.30etara eta
arratsaldeko 5.30etatik 8.30etara
Uztailaren 1etik Abuztuaren 31ra

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hobereana

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bittiria, 67 - 637264

Etxalar

Kultur Egunetako lehen igandeak gozatzeko aukera eman digu

Gasna lehiaketara aurkeztutako hamalau gasnen artean, Arizkungo SAT Amaiur suertatu zen onena

PELLO APEZETXEA

Kultur Egunetako lehen igandea joan da, eta ongi joan da: giro ona, bai eguraldiari dagokionez, bai jendearen harrerari begiratzeko badiogu ere. Gasna lehiaketara 14 gasna presentatu ziren, herrikoak 4, eta gainerakoak Baztan eta Maierrekako hainbat herri-takoak. Hamar artisau-aren lanak ikusgai izan ziren, Etxalar, Zubieta, Doneztebe, Arizkun, Oiartzun, Irun eta Donostiakoak, bertako talogileak ere lagun. Urtean barrena ikasten aritu diren herritarren esku lanek eskola zaharretako gela haundiena bete zuten. Bazkariak berezitasuna izan du aurtengoan, bertan prestatua zela, alegia,



Bazkalondoko bertso saioan



Gasna lehiaketako lehen saria, Arizkungo SAT Amaiur



Eskolako erakusketa

Argazkiak: Pello APEZETXEA



Bigarren saria eta Etxalarko lehena, Isidro Ariztegi. Saria bere ilobak bildu zuen.

eta bazkaldarren onespena jaso du. 120 bazkaldar, denetara. Bazkalondoa Amuriza, Sorozabal eta Arozena bertsolariek girotu zuten. Eta ezin ditugu herriko trikitilari gazteak atzendu.

Dantza ikastaroa

Gobernuak eta Udalak ordaintzen duten dantza ikastaldirako izena eman dute aurtenean 20 bat gaztek. Ez dakite oraindik, ea orain hasi, berandu samar baita, edo udazken alderako utzi.

Industri kontseilariaren bisitaldia

Nafar Gobernuako Industri Kontseilaria, Kabases Jauna, Etxalarraren izan da Lorpen lantegia ikusten.



Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

INAXIO JANARIDENDA
Igandetan 9etatik 13etara irekia
ASTERO eskeintza bereziak
Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESAKA



Irungo errepidea - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximikiak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujardada' Maiztoa
Zahar antzekoa Txanpetina

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK



APARAN, S. A. BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133

451 541

Faxa: 450 334

DONEZTEBE



Heldu den astelehenean ospatuko da San Juan Xar eguna

Junior mailan bigarren gelditu zen Patxi Irazoki Nafarroako Mendi Bizikleta txapelketan

OSKAR TXOPERENA

Ustekabeen, aur-tengo San Juan a ere ailegatu zaigu, egun berezia igantziar guz-tientzat. Pentsatzekoa da aurten, astelehena izanik, ez dela kanpotik hainbertze jende etorriko, baina halere, kobazuilo ingurua ederki beteko da meza orduan, eguraldiak pixka bat lagunduz gero. Hurrengo hiru igant-detan ere meza elizan izan beharrean San Juan Xarren izanen da.

Aurten, bertan paratzen den ostatuaren ardura herriko koruak hartu du, antolatu nahi duten kontzertu bate-rako zerbait ateratze-ko asmoz. Bertzalde, lehendabiziko aldia izanen da San Juan



Nafarroako txapelkunorde berria dugu Patxi Irazoki junior mailan, Obanosen jokaturako Nafarroako txapelketan bigarren gelditu ondotik. Denboraldi ederra darama eta irailan jokaturako diren bi proben faltan lehendabiziko doia Nafarroako Irekian ere

eguneko jubilatuen besta Zahar Etxekoek antolatzen dutela.

Igerilekuak

Rakel Etxartek hartu du azkenean uda honetan piszina zaintze-ko lana. Epea maia-tzaren azken arte lu-zatu behar izan zuen Udalak, lehendabizi-ko epea akautu eta inork izenik eman ez zuelako. Rakel eskaintza ia ia milioi bat merkeagoa izan zen bertzea baino.

Santiago bidea

Santiagoko bidea egitera joan zen aintzin horretan Jose M^o Iturbide Etxe-ttikioa. Arkupeko bertze zen-

bait kiderekin batera bidean dugu dagoeneko. Sanferminetan dira itzultzekoak eta bitartean kilometro alde polita egin beharko dute egunero. Halere, aisa eginen ditu Jose Marik, maiz ikusten baitugu azkenaldi honetan mendian ibiltzen.

Korpus Eguna

Ederra atera zen Korpus eguneko prozesioa. A zer lana egin behar izan duten zenbaitzuk prozesio bidea zegoen bezala paratze-ko! Bi aldare zeuden paratuta, bat Goiexeko atarea eta bertzea Allineko atarean. Bide guzia berriz, meindire eta iratzez apaindua eta balkoi eta leihoetan ere, maindire eta oiha-lak.

Oskar TXOPERENA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

F. MARITORENA
Mendi eta lorategi garbiketak
Tfnoa.: (948) 63 11 99 - BERA

Elizatzte
ERLOJUTEGI
BITXITEGIA
Nafarrentzat prezio bereziak
Landetxe Enparantza © 943.492698 OIARTZUN

ROMANO dekorazioak
PINTURA ETA PAPERETATZE LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

- Zolak jartzen ditugu:
 - Kortxoa
 - Moketak
 - Parketa
 - Sintasola
- Gure kolokazio tailerra daukagu
- Komertzioen errotulazioa

Aurrekontuak konpromezurik gabe

Legia I • Tel. 631137-630941 • BERA

Lehen aldiz jauna hartu zuten zortzi haurrek Korpus egunean

Ekaitza elkarteak antolatutako pala txapelketaren finalak larunbat honetan jokatuko dira

Arantza

GARBIÑE ETA ELIXABET

Pasa den igandean, ekainaren 9an, Korpus edo Besta Berri eguna ospatu zen. Egun hortan bertan, lehen aldiz jauna hartu zuten zortzi haurrek, lau neska eta lau mutilek.

Duda aunitzen ondoren, eguraldi ederra ateratu zen. 11,30etan hasitako meza zoragarria izan zen eta prozesioan jende aunitzek parte hartu zuen. Ondoren, nahi izan zuen guztia-erentzat hameketakoa izan zen Zahar Txokon.

Zuzendari berria eskolan

Arantzako eskolan zuzendari aldaketa izan da. Jose Ramon Amoros izan da orain arte zuzendaria eta he-



Lehen jaunartzea egin zuten zortzi neska-mutikoak prozesioan

Argazkia: Bixente Taberna

mendik aitzinera Isabel Danboriena izanen da.

Pala txapelketaren finalak larunbatean

Ekaitza elkarteko

pala txapelketa ere aitzinera doa eta hilaren 15ean jokatu ziren finalerdiak. Larunbat honetan, ekainaren 22an, jokatuko dira finalak. Arratsean afa-


ria eginen dute elkarrean bertan eta finale-ra ailegatzeko direnek, gonbidatuak izanen diren arren, nahi duenak joaten ahal da afaltzera.

Herriko taldea Bortzirietako futbito txapelketan

Arantzako taldea parte hartzen ari da Lesakan jokatzen ari den Bortzirietako futbito txapelketan. Momentuz lehen fasean daude, final laurdenetarako txartel bila.

Jendea belar lanetan ari da

Azken asteetan egin dituen bero haundi horiek ederki aprobetxatu dituzte arantzarrak. Belarrak idortzeko lan aunitz egin dituzte baserrietan eta lanak ederki aurreratu dituzte. Berriz ere eguraldi ederraren esperoan daude belarrak lehenbaitlehen eta ahalik eta hoberean egiteko.



ALBERGIA JATETXEA

© 634179
ARANTZA

GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63



BLANCO ANAIK, S.L.

MARMOL eta GRANITOAK

Sukalde entzimerak • Bainua • Hilerria

BERA - Kanttonberri 4, ☎ 631052
IRUN-(943) 631084 • LEZO(943) 529390



ALBERTO

ZURE MODA DENDA MARKARIK ONENEKIN:

- Daniel Hechter
- Bonaventure
- Caramelo
- Replay
- Island
- Diesel
- Genfis
- Guess
- Lacoste
- Levi's

GONBIDATU ETA GIZONGAIENDAKO TRAJEAK

Fuenterrabia 6, Tfnoa. 943-615815 IRUN

Malerreka

Sunbillako igerilekua larunbatean zabaldu zen

Margari Capdequi izanen da arduraduna eta Edurne Villanuevak emanen du ikastaroa

IXABEL ETA JOSUNE

Ekainaren 15etik aitzinera igerilekua zabalik dago. Aurten, bertan lan egiteko lehiaketa atara zuen udalak eta hiru lagun bertzerik ez ziren aurkeztu, horietatik bakarra herrikoa. Eskaintzak ikusi ondoren, Margari Capdequiri ematea erabaki zen, merkeena eta puntu gehien lortu zuena zelako eta bertze bi eskaintzak ikastaroetara mugatzen zirelako, gehien bat.

Igeriketa ikastaroak, Edurne Villanuevak emanen ditu iaz bezala. Bonoei dago kienez, 18 urtetik goitikoak 4.500 pta, 12tik 18 bitartekoak 2.500 eta 6tik 12 bitartekoak 450 ordaindu beharko dute denboraldia. Hilabeteko bonoak, 3.000, 2.000 eta 250 ptakoak izanen dira eta eguneko sarrerak 450, 250 eta 150 pezetakoak izanen dira.



Ekainaren 9an Besta Berri Eguna ospatu zen

Besta Berri

Ekainaren 9an Besta Berri eguna ospatu zen. Ederki apaindua zegoen Karrika Nagusitik, lehen jauntzea egin dutenek eta udaletxeokoz prozesioa egin zuten.

Udal langilea

Sei hilabeterako bertze langile bat izanen da herrian. Bigarren albintea edo albintearen laguntzaile bezala arituko da Meliton Irazoki.



Kukumiku finalean 100 lagunetik goiti

100 lagunetik goiti elkartu ziren ekainaren 8an Doneztebeko zinean Kukumiku lehiaketaren finala ikusteko. Eratsun, Sunbilla eta Beintzan kanporaketak egin ondoren bortz bikote iritsi ziren finalean. Irabazleak, Patxi Olazar eta Javier Otermin doneztebarrak izan ziren, 2.ak Gaizka Elizalde eta Arkaitz Bizente, 3.ak Maria Bañares eta Ainara Mutuberria, 4.nak Mainer Irazoki eta Mainer Bidegain eta 5.nak Maria Arretxea eta Pilar Mitxeltorena. Ondoren, lehiaketa aritu ziren 18 bikoteendako Doneztebeko zenbait komertzioemandako sariak banatu ziren.

*** ONGI PASA HERRIKO BESTAK ***



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

Doneztebe

Arkupeak elkartearen urteko besta ekainaren 28an egingen da

85 urte eta Urrezko Ezteiak betetzen dituztenak omentzeaz gain, elkartearen 10. urteurrena ere ospatuko dute

TXEMA ALDABE

Ekainaren 28an Arkupeak erretiratuak elkarteak bere urteroko besta ospatuko du. 85 urte eta Urrezko Ezteiak aurten betetzen dituztenek omentzeaz gain, elkartearen hamargarren urteurrena ere gogoratuko dute.

10,30etan txistulariek herriko karririk zeharkatuko dituzte.

ETXEBIZITZA ZAINDUEN INAUGURAZIOA

Ordu erdi berandua-go, Fernando Sebastian Iruñako artzapezpikuak, Nafarroako Gobernuaaren agintarien aitzinean Malerrekako Etxebizitza Zainduak inauguratuko ditu. 11,30etan Meza izanen da eskolako frontoian. Bertsolariak eta txistulariak arituko dira, omenduei sariak eman aintzin. Zelai harrija-sotzaileak 150 kiloko harri errektangularra borts minututan 32 aldiz altxatzen saiatuko



Trapatan dantza berreskuratu du Doneztebeko dantzari eta musikari talde honek. Berrogei urte baziren dantza hau galdu zenetik eta ekainaren 9an egindako dantza saiora jende ugari hurbildu zen

Argazkia: Mena

da errekorra bilatuz. Perurena aita-semeak ere etortzekoak dira eta ondotik, dantzarien emanaldia izanen da.

Argetaseko Jatetxe modernoaren esku Bordatxon egingen den bazkari bikainaren ondotik, Amalur taldearekin dantzaldia izanen da. Ekitaldi honi sarrera agintariak emanen diote.

Eskolako maisu baten kontrako salaketa

Zigor Kode berria aplikatu behar zutela eta, horren kontra hotz greba egin zen zenbait ikastetxetan. Doneztebeko eskolan ere bi irakaslek apoiatu zuten. Maiatzaren 23an egin beharreko protesta eta DBHko ikasgela batean gertatutakoaz Do-

neztebeko guraso bategi salaketa aurkeztu du, Plastika ematen duen maisuaren aurka. Salaketan ageri denez, maisuak bandera espainolak erretzea utzi egin zien ikasleei eta honetaz gain, euskara erabiltzera behartu egin dituzte. Salaketaren 3. puntuak dioenez maisu hau Itoizko solidario baten lehengusua

da eta harro omen dago berak kableak moztu zituelako.

“Gauzak ez ziren horrela gertatu” Martin Ibarra maisuaren hitzetan. Hezkuntzan eragin haundiak izanen ditu Zigor Kode berri honek eta egun horretan egin zuena hauxe da: “galtza moztzekin eta manta soinean joan nintzen klaserara. Han ikasleak galdetuta, ekintza honen zergatia azaldu nion talde bati eta 2. taldeari intsumisio eta soldaduskari buruz idazlantxo bat egiteko erran nion. Ikasle bategi fregaderara joan ziren eta zerbait erre zuten, baina ez nintzen konturatu zer zen”. Bigarren akusazioaz, “D ereduan daudelako euskaraz egin behar dutela” erraten diet eta hirugarrengoz berriaz, “harro nago nire lehengusuez, baina pertsona bezala eta ez ekintza hori egiteaz”.

*** ONGI PASA HERRIKO BESTAK ***

**ZURE GORPUTZA
ZURE ALTXORRA DA**

- Aurpegirako tratamenduak azido glikolikoaren bidez
- Depilazio elektrikoa eta argizariarekin
- Makilari iraunkorra

**Etorri eta ezagutu ezazu
estetika zentrua**



Lurrindenda • Apaindegia
Ameztia karrika z/g
© 450163 • DONEZTEBE

**DONEZTEBE
AKADEMIA**

Maila guztiak
OHO, DBH, LH, BBB, IEE...
Edozein asignaturak
Matematikak, fisika, kimika, latina. dib.tek.
Hizkuntzak
Euskera, ingelesa, frantsesa (Adin guztiak)
Mekanografia
© 451841 • 908-778653
Parrokia 5, 2. DONEZTEBE

Malerreka

Saldiasko Sanjuanak, ekainaren 21etik 24ra

Pilota partiduak eta aizkol apostuak nagusi



Aizkol aposturik ez da aurtengo fiesten egitarauan faltaruko. Mindegia aita-semeak Arrospeide eta Arriaren semearen kontra arituko dira San Juan bezperan

Ekainak 21, ortzirala: 9etan Herriko Ostatuan zopak eta txuritabeltzak. 12etan JATOR taldearekin dantzaldia.

Ekainak 22, larunbata: 10etan karrika-erronda herriko trikitalariek. 12etan plater tiraketa. 1etan mus txapelketa. 4,30etan haurrendako jokoak. 6etan pilota partiduak: Mitxeo-Begino, Urrutia-Baleztenaren kontra. Goizueta-Senberoitx, Retegi-Zilbetiren kontra. Arratsaldean eta gauaz dantzaldia EKAITZA taldearekin.

Ekainak 23, igandea: 10etan karrika erronda herriko trikitalariek. 1etan aizkora apostua: Mindegia aita-semeak,

Arrospeide eta Arriaren semearen kontra. 6etan pilota partiduak herriko gazteen artean. Ondotik, Mikelperizena-Barrionola, Galarza-Otxandorenaren kontra.

Ekainak 24, astelehena, San Juan Eguna: 10etan karrika erronda txistulariek. 12etan Meza Nagusia. Mezon-doren mus txapelketaren finala. 2etan bazka-

ria. Aurretik eta bazkarian zehar bertsolariak eta Modesto akordeolaria. Arratsaldean eta gauaz musika Modestorekin eta fiesten akabila.

ttipi-flash

- ❖ **Leurtza inguruan**
akanpatzea debekatua egonen da uztailearen 1etik aitzinera, 'Ingurune naturala' izendatu baitute. Jendea egun-pasa edo pasioan joan daiteke, baina ezin izanen da camping dendarik ezarri.
- ❖ **Erretegi berria Iturenen**
Jatetxe berria irekiko dute Iturengeko bestetan. Erretegia Altxunean irekiko du Amaia Altxuk. Erretegiak 45 pertsonendako lekua eskainiko du.
- ❖ **Donamariako**
depuradora eta urzikinen tratamendurako proiektua egiteko espropiazioak egiten hasiko dira. Proiektua 76 milioioa da.

Narbarte

Kultur Asteak arrakasta izan du

Emakumezkoen lehen pala txapelketa jokatu zen eta erakusketa, dantza saioak eta ateraldiak izan ziren



Narbarteko emakumeen I. pala txapelketako parte hartzaileak. Arantxa Juanaberri eta Katixa Oteizak jantzi zuten txapela. Argazkia: Esther Arretxea

Maiatzaren 27tik ekainaren 2ra ospatutako Narbarteko Kultur Asteak arrakasta handia izan zuen jendearen parte hartzearen aldetik.

Lehen egunean, Guadalupera ateraldia egin zuten eskolako neska-mutikoek, beren ama eta irakasleen laguntzaz. Eguraldi zoragarria aprobetxatuz, hondartzatik gorri gorri etorri ziren.

Maiatzaren 29an, emakumezkoen I. pa-

la txapelketa burutu zen. Arantxa Juanaberri eta Katixa Oteiza izan ziren irabazleak.

Maiatzaren 31n Bertizera egunpasa joan ziren eta hilaren 2an, herriko haurren dantza saioak eta urtean zehar eskulangintza ikastaroan egindako lanen erakusketa izan ziren.

Bertzalde, urritik maiatzera bitarte euskara klaseak izan ondotik, heldu den urri-rarte oporrak hartu dituzte.



MALERREKAKO EUSKARA
ZERBITZUAREN ARGITALPENA

**Euskara
merkataritza
munduan**

MALERREKAKO EUSKARA BATZORDEAK ESKERTZA PUBLIKOA

J

adanik, zuetako aunitzek ezagutuko duzue 1994ko udazkenean Euskara Zerbitzuak Merkataritza arloan euskara sustatzeko egitasmoari ekin ziola. Gerroztik, Malerrekako establezimenduak bisitatu dituzte Josebe Aldabe eta Lino Elizalde.

Igaz, hau da, egitasmoaren bigarren urtean, egindako lehenengo bisitan establezimenduen euskararen egoerari buruzko datuak jaso ziren (errotuloak, inprimakiak, idazki propioak, boltsak, fakturak,...). Erran behar da, 1994ean genituen **helburu** berberak ditugula orain ere:

- Gizarte bizitzan erranahi handikoa den eremuan **euskararen erabilera** areagotzea.
- **Langileen hizkuntza egoera** (ahozkoa nahiz idatzia) **hobetzea**.



- **Establezimendu-sare euskalduna sortzea** eta garatzea.

Helburu hauek bideratzeko bi urte hauetan lan aunitz egin da baina, dagoneko fruituak lortzen hasi gara:

- Establezimendu aunitzetan paratutako idazkiak euskaraz daude.
- Dendariak ikasten ari dira.
- Barne funtzionamendu eta harremanak euskaraz izatea egunetik egunera bideragarriago bilakatu da. Egitasmoa aurkezterakoan saltzaileei, guttieneko konpromezua eskatu zaie.

Horrela izaki, **1994-95** urtean Malerrekako merkataritza arloko **hizkuntza egoeraren azterketa** egin zen (datuak bildu eta prozesatu).

1995-96ko urtean, egoera ezagutzen genuenez, **KALITATEZKO itzulpen zerbitzua** eskeini zitzaien (hemengo euskalkia zainduz, lan pertsonalizatua dendaz-denda ibiliz, diseinua, materiala, ...).

1996-97ko urtean, orain arteko egitasmoari **JARRAIPENA** emateko, **merkatari eta Euskara Zerbitzuaren arteko hartuemanak iraunko-**

rrak izateko egitasmoa finkatu dugu, lau hilabete-ko lanaren orde, urte guziko lana bihurtuz:

- **IKASTAROAK** (40 ordu izan orde, hilbeltzatik Aste Santura).
 - **ITZULPEN ZERBITZUA** etenik gabekoa izatea (ez lau hilabete-ko).
 - **BISITAK** bi hilabetez behin egitea (merkatarien inplikazioa erabatekoa izateko).
- Etorkizuneko hizkuntza euskara izatea nahi badugu, euskaraz normal bizi ahal izateko **GUZTION** jarrera da inportantea. Zuk ere **ERABILI!**

Guk euskaraz, dendariak ere bai!!

Zer diote ikastaroetaz euskara ikasten ibili diren dendariak

Ondoan ageri diren hamabi lagun hauetaz gain, 'Taberna Etxea' Arropadendako Rexu Etxebestek ere parte hartu zuen ikastaroan

35 dendarik eman zuten izena, baina ordutegia edo lanagatik, hamahiruk bertzerik ez zuten burutu ikastaroa. Hilbeltzatik maiatza bitarte aritu ziren zintzo-zintzo eta ilusioz, astean bi egunez eta 40 orduz.



Alfa I

Anabel
SAN MIGUEL
L. Martin harategia

«Hagitz gustora ibili gara. Karrikan eta, elkar ikusten dugunean, lehen baino gehiago aritzen gara euskaraz. Zergatik? Ohitura hartu dugulako eta, zenbat eta gehiago jakin orduan eta konfiantza handiagoa dugu. Mundu berri eta pollit bat deskubritu dut. Hemendik animatu nahi ditut dendariak heldu den urtean izena ematera»



Alfa I

Pili INDA
Arin Aseguru
Zerbitzuak

«Lau ginen taldean, baina niri horrelakoak gustatzen zaizkit taldeak, tikiak eta intimoak. 40 ordu eskas iduritu zaizkit, niregatik urte osoan zehar arituko nintzateke; erritmo berean baina ikasturte osoan. Ikastaro hauetan ari naizenetik soltura handiagoarekin aritzen naiz euskaraz»



Alfa I

Patxi IRIARTE
Zaldua
Argazkidenda

«Ikastaroa akitu da, baina orain oroitzean bertan edaten genuen kafe goxoaz oroitzen naiz. Euskaltegian ari naizenetik lehen baino jende gehiago etortzen zait euskaraz, batez ere gazteak, eta horrek poza handia ematen du. Honetaz gain, dendarion arteko harremanak sendotu ditugu eta lagun bihurtu gara»



3. Urratsa

Mixel LAKANBRA
Lakanbra Tailerra

«Euskara aunitz gustatzen zait eta bizi garen tokian inportantea da euskaraz hitzegitea. Donezteben jende gazteak apenas solasten du euskaraz eta guregatik ez litzateke galdu behar. Lanean batzutan euskaraz aritzen naiz, hanka sartzen badut ere. Heldu den urtean berriz ere animatuko naiz, denbora izanez gero»



3. Urratsa

Josetxo RUIZ
LOPETEDI
Iturengo Botika

«Euskara ikastera animatu nintzen jendearekin hobeki komunikatzeko eta horretaz gain euskara kultura zaharra da eta orain ezin dugu galtzera utzi. Heldu den urtean ere segituko dut euskara ikasten, primeran iruditzen zait merkataritzan euskaraz kanpaina hau eta jendea animatuko nuke. Erdaraz erraten den bezala 'El saber no ocupa lugar'»



3. Urratsa

Maite IBARROLA
Ibarrola haur
arropa denda.

«Euskaraz solasean etortzen den jendearekin ongi ulertzeko animatu naiz. Ongi jakitea nahiko nuke, bai horixe. Heldu den urtean ere apuntatuko naiz, nola ez. Euskararen aldeko kanpaina hauek ongi daude, beharrezkoak dira»



3. Urratsa

Elena ERASO
M^a Cruz Ientzeria

«Euskara ikasteko ordua da ezta! Denok ikasi behar dugu, eta leku publikoetan aritzen garenek batez ere. Dendan ahal dudana bezala batzuekin solasten dut, erdaraz gaizki moldatzen direnekin. Nere ustez Merkataritzan Euskaraz kanpaina hauek beharrezkoak dira. Hurrengoan ere animatuko naiz, denbora librea badut bederen»



1. ko Urratsa

M^a Paz ALONSO
Saioa Boutique

«Zaila da gure adinean ikastea, hala ere merezi du, ikasitakoa erabili behar da. Ulermen mailan aurrerapena sumatu dut eta txapurreo batzuk egiten ditut. Ikastaro hauek hobe ikasturtearen hasieran hasi eta lehenago akitu. Hobe da egun gehiago astean, nahiz eta tarteka huts egin behar izatea»



1. ko Urratsa

M^a Karmen
ARZELUS
Blas liburudenda

«Nere haurregatik eta dendako zerbitzua hobeki emateko animatu nintzen euskara ikastera. Gogoz hartu, sakrifikatu eta egunero joan behar da, bertzela urte batetik bertzera atzertzen da. Astean egun gehiago hobe eta ahal bada Urriari hasi eta Aste Sainduan akitu. Komertziantek animatuko nitzuke, denak ezagunak izateak laguntzen du klaseko dinamikan»



1. ko Urratsa

Karlos OSTIZ
Ostiz Bazarra

«Lehenbiziko eskolan eta gero Leharotzen euskara ikasten aritu nintzen. Donostiako Unibertsitatean euskararen beharra sumatu nuen, batez ere giro euskaldunetan. Ahal badut nahiago dut egunero joan klaseetara, hori bai, denok maila berdintsua badugu. Nahiago dut urriari hasi eta Eguberrietan tarte handiagoa klaserik gabe egon, lan handia izaten delako»



1. ko Urratsa

Mertxe REGUERA
Bazar 100

«Ordutegi eta klase erritmoa aldetik proposamen ona egin zigutelako animatu nintzen. Heldu den urtean segitzeko prest nago, ahal bada ikastaro luzeago batean, hilabete gehiago baina astean bi egunez. Ulermen mailan franko ikasi dut eta jendea animatuko nuke ikastera, agobiatu gabe. Esperientzia positiboa izan da»



1. ko Urratsa

Sagrario
BARCINA
Bazar 100

«Laz ere asmaoa banuen baina ordutegiagatik ezin izan nintzen joan. Euskara ikastea ongi dago eta ez bakarrik zure negozioari begira. Zerbakiak ongi ikasi ditut eta lanean baliagarriak izan dira. Metodologia ongi da, taldekideak ezagunak izanik ongi ikasten da eta gustora egon gara. Nik jendea ikastera animatuko nuke, aunitzetan nahi izateak ahalmena ematen du»

Bisitarien iritzia

Lino Elizalde eta Josebe Aldabe

"Orain dela bi urte deitu gintuzten Merkatal Kanpaina honetan partehartzeko eta bi alditan ibili gara dendaz denda, farmazietan, bankuetan, tailerretan eta bertzelako komertzioetan. Malerreka osoa eta Bertizarana hartu ditugu. Geroztik gehixeago ikusten da euskara merkatal munduan, harrera onez hartu baituzten proposamena. Esan behar da denda eta establezimendu batzuetan bazutela ia zerbait euskaraz gu joan baino lehen. Orain, barruko papeleoan eta kontuak egiterakoan inor gutxik era-


biltzen zuen. Horretan nahi ditugu animatu: barrengo kontabilitatea ere euskaraz egiten.

Bestalde lan gaitza dago oraindik egiteko. Adibidez, arraindegi batean paratu daitezke arrainen izenak euskaraz baina kotxe tailer batean (eta hori gertatu da Doneztebeko tailerretan) hagitx zaila egiten zaie kotxearen alde eta zati guztiekin euskaraz funtzionatzea eta jendeari ematen zaizkion fakturretan eta ordenagailuan sartzen dituzten fitxetan ere euskara erabiltzea izugarri zaila ematen

du.

Guk, dena den, ez dela ezinezkoa diogu eta hemendik animatu nahi ditugu, ez baita ilusioa eta asmoa garai dezakeen arazorik.

Eta, orokorrean, denoi bidaltzen dizuegu gure animoa eta berriz ere hor izango gaituzue zuen partehartzeari eskaka. Badakizue, dendari eta komertziantezaretenak zuen dendetan eta komertziotan euskaraz funtzionatzea nahi baduzue deitu 451746 telefonora, Euskara Zerbitzura, zerbitzua dohainik baituzue. Ongi segitu!"



Lino ELIZALDE

Lehendabiziko bisitalditi hona nabaritu al duzu aldaketarik dendetan?

Denda batzuetan bai. Ez denetan ordea. Egia erran, ez da horren erraxa. Zera erran nahi dut: denda eta komertzio barreneko idazkiak eta publizitatea betidanik gazteleraz egin dute dendariak, eta hori guzia ezin da egun batetik bertzera aldatu. Zernahi gisa, pittaka pittaka, baina zerbait mugitzen ari dela antzeman dut.

Kanpaina honen aintzinean, nolako jarrera izan dute dendariak?

Hiru jarrera mota azpimarratuko nituzke:

1) Hagitz positiboa. Dendariak ahaleginak egiten ditu euskara ikasteko (40 orduko ikastaroan aritzeko izena ematen du), bere idazkiak eta oharrak euskara hutsean edo guttienez elebrietan jartzen saiatzen da.



Josebe ALDABE

Bera gai ez bada deitzen du eta galdetu egiten dizu. Hau da, nahiko asumitua dauka hemengo euskaldunok %90a garelako eta aintzat hartu behar gaituela.

2) Positiboa, baina gauzak bere horretan uztearen aldekoa da bigarren hau. Hau da, dendaria euskalduna da,

euskaraz mintzatzen da edo zerbait ulertzen du. Baina idazkiak euskara hutsean edo elebrietan jartzeko esfuertzoaren aintzinean alfer samarra da. Tarteke bere dendara buelta bat ematera joan behar izaten dugu ea baduen zerbait euskaratzeko edo. Guregana jo dezakeela jakinda ere, "atzendu" egiten zaio eta, ondorioz, lehen bezala funtzionatzen du, erdaraz, alegia.

3) Jarrera negatiboa eta pasota. Zorionez, guttiengoak erakutsi du jarrera hau. Zer erranik ez, ez duela "Dendariak eta komertziantek euskaraz!!" kanpainaren aldeko deus ere egin. Ez du inolako konpromezurik nahi izan. Agian integratuko da ondokoak euskaraz saltzen duela ikusten duenean. Esperantzaz hori badut!!

Zer erranen zenieke dendariei heldu den bi-

sitaldia laister egingen den honetan?

Batetik, nire eskerrik beroenak euskararen aldeko apustu honetan nola edo hala saiatu zareten guzoi: euskarazko klaseetara etorri eta horren giro polita sortzeagatik, zuen txarteltxoak euskaraz edo elebrietan paratu dituzuelakoz, erosleekin euskaraz solasten saiatzeagatik eta, azken finean, euskaraz aritu nahi duenari erakutsi diozuen begirune eta errespetoagatik. Esker mila.

Eta euskararekin deus ere jakin nahi ez duenari?

Animatzeko, gure gizartea hagitx pribilegiatua dela euskararen jabe delakotz, zuek hor gibelean geldituz oso gauza aberatsa baztertzen eta bazterrarratzen ari baitzarete. Zuek komertziantek izaki, ez al zaizkizue interesatzen erosle euskaldunak?



MALERREKAKO EUSKARA
ZERBITZUAREN ARGITALPENA

**Euskara
merkataritza
munduan**

Euskararen aldeko hitzarmena sinatu dutenei **ESKER MILA!**

**Malerrekako
Mankomunitateko
herri guzien artean
91 establezimendu
izan dira (%66a),
euskara sustatzeko
HITZARMENA
izenpetu dutenak.**

**Malerrekako
Euskara
Zerbitzuak
lauretan hogeita-
maika
establezimendu
hauei **ESKERTZA
PUBLIKOA** egin
nahi die
Malerrekako
euskaltzale guzien
izenean, gure
hizkuntza
sustatzearen alde
erakutsi duten
borondatea dela
eta.**

**Hauei beraz,
GURE ESKERRIK
BEREZKOENAK,
eta gure animorik
bultzakorrena
abiatu diren bidean
aintzinerat
segitzeko.**

BEINTZA-LABAIEN

Antsolantzenea
Bar Esquina
Beintzako Ostaturia
Don Fernandonea
Labaiengo Ostaturia

DONAMARIA

Donamariako Benta

DONEZTEBE

Amaiur Sukaldeak
Amezti Ostaturia
Apeztegia Berrria
Arin Zerbitzuak
Arozena Ostaturia
Askin Taberna
Bazar 100
Bearzana Pentsuak
Beatriz Ileapaindegia
Belarra Kafetegia
Belen Loredenda
Bideoson
Blas Liburudenda
Bordatxo Dantzalekua
Botika
Daniel Elortza Harategia
Ekaitza Taberna
Elkar Asesoria
El Café Kafetegia
Ezkurra Erretegia
Gurutze Denda
Hamabi Ostaturia
Honorio Taberna Denda
Ibarburu Jatetxea
Ibarrola Denda
Irigoien Arraindegia
Itxaso Arraindegia
Jubilatuena Etxea

Kalash Bitxidenda
Kamamila Belardenda
Kaxerna Ostaturia
Kontxa Ostaturia
Lakanbra Motodenda
L.Martin Harategia
Maite Ileapaindegia
M^a Cruz Lentzeria
M^a Jesus Iribarren
Maylin Kiroldenda
Maylin Ostaturia
Mena Argazkidenda
Mendaur Motor
Miren Papertegia
Nerea Oinetakoak
Ostiz Etxea
Pikabea Boutique
Rodri Elektrogailuak
Ruiz Autozerbitzua
Saioa Boutique
Saldias Harategia
Santi Taberna
Taberna Etxea
Titare Jantxidenda
Titi Ostaturia Anaiak
Tximeleta Jantxidenda
Txirrista Jantxidenda
Zaldua Argazkidenda

ELGORRIAGA

Herriko Ostaturia
Hilarion Jatetxea
Maitxenea Fonda

ITUREN

Aurtizko Ostaturia
Bereau Janaridenda
Botika
Herriko Ostaturia

LEGASA

Opoka Ostaturia

NARBARTE

Botika
Esther Loredenda
Herriko Ostaturia
Janaridenda

SALDIAS

Olasoa Okindegia
Ostaturia

SUNBILLA

Bibi Janaridenda
Botika
Bustiz Ostaturia
Fonda Ostaturia
Iribarren Harategia
Iruribietta Jatetxea
Maia Ostaturia
Maite Ileapaindegia
M^a Jesus Harategia
Pixarreneia Janaridenda
Tabakoak

URROTZ

Herriko Ostaturia

ZUBIETA

Etxekenea
Errandonea Ostaturia
Herriko Ostaturia
Santxokoa Okindegia-Ostaturia

RENAULT TRAFIC
BIZITZA OSORAKO

Renault Trafic Combi 6. 25%eko deskontua



Bainan prezioan bakarrik! Orainxe duzu aukera Renault Trafic Combi 6a eramateko %25eko deskontuarekin eta ekipamendurik hoberenarekin: **6 eserleku kristalez tatu, lagunduriko direkzioa, kanpoan angelu haundiko atzerantzko ispiluak, atzeko ateak 180°tan zabalgarriak eta 90°tan atxekigarriak, gidariaren eserlekua hirudimentsiotan erregulagarria eta bizkarralde makurgarria,**

Eta guzi hori **1.899.000 PTAtan.** (BEZa barne) *



RENAULT
GIDATZEKO
PLAZERRA

PEDRO GARMENDIA, S.A.
Errep. z/g - Tfnoa 58 04 31. ELIZONDO


TALLERES SANTESTEBAN, S.A.
Leitzako Errep., 1 Km.a - Tfnoa 45 02 82. DONEZTEBE

SEMPER HNOS., S.L.
Irun-Iruña Errep. - Tfnoa. 63 06 21 - BERA

AMAIUR

SUKALDE ALTZARIAK • BAINUAK

*Herriko bestak ospatzeko elkartasunean eta goxotasunean
zure sukalde eta bainua*



*Etorri, ikusi
eta konparatu*

Doneztebeko sarreran • ☎ 45 04 00

Goizueta

Musika eskolakoek larunbatean eskainiko dute urteko kontzertua

Herriko futbito txapelketan, bestalde, Umore Ona taldea nagusitu zen

ESTEBAN AROZENA

Udal musika eskolako ikasleek beraien trebezia erakusteko aukera ezin hobea izango dute larunbatean, ekainak 22, egun honetan burutuko baita urtero-urtero eskaini ohi duten kontzertua.

Pianoa, gitarra, txistu, kordiona eta trikitixaren soinua entzun ahal izango da eskolako jangelan, arratsaldeko 7,30etatik aurrera, tresna ezberdinak nahasita ere doinu

Lehen beheko solairua konpondu zitzaien Herriko Etxeari eta orain teilatuari ailegatu zaio txanda. Udalaren asmoak betetzen baldin badira hurrengo pausoa bulegoak eta fatxadak konpontzea izango da



batzuk joko direlarik.

Aipatutako eskolako gela hori ez izan arren tokirik egokiena kontzertu baterako, beste aukerarik ez omen daukate antolatzailleek, azken urteotan egin den lekua, eliza alegia, erabiltzeko baimena ukatu egin omen zaie eta. Dena den, oztopoak oztopo ikasleen maila kontutan harturik, ordubete zoragarria ziurtatua omen dago. Horregatik, gurasoez gain herriko musika zale guztiak gonbidatzen dituzte bertara antolatzailleek.

Umore Ona garaile futbito txapelketan

Herriko futbito txapelketaren finala ekainaren 8an jokatu zen Umore Ona taldea suertatu zen txapeldun.

Bigarren postua berriz, Iberoko Putzuk eskuratu zuen. Ekipo txapeldunajokalari hauek osatu zuten: Aitor Mendizabal, Andoni Etxenike, Unai Miranda, Antton Rodriguez, Patxi Iribarren, Patxi Bakero, Mikel Elizegi, Agustin Perez eta Juan Tomasena.

Kirolarekin segituz, ezin da aipatu gabe utzi Mari Jose Etxeberriak eta Jose Luis Apezteak paleta txapelketa mixtoan lortutako garaipena, Izaskun Bakero eta Iñaki Loiaratei finalean irabazi ondoren.

Areso

Kultur Eguna ospatu zen ekainaren 2an

Herri bazkarian laurogei lagun inguru bildu ziren

JUANA M^a SAIZAR

Ekainaren 2an ospatu zen Kultur Eguna. Ohiko hamaiketako eta erakusketak (buztina, lore lehorrak, saskigileak, kafe xigortzailleak eta emakume eskulanak), umendako antzerkia eta herriko dantzariak goizeko egitaraua osatu zuten. Herri bazkarian 80 bat lagun bildu ziren eta arratsaldean proba konbinatua burutu zen Arraioz,



Kultur Egunean kafea nola xigortzen den ikusi ahal izan genuen

Arg.: Juana Mari

Betelu eta Aresoren artean. Sokatira saioan

herritarrak nagusitu ziren. Txokolata erros-

kilarekin banatu zen jende guztiarentzat eta

bukatze dantzaldia.

Oharra

Azkeneko alean agertutako informazio batek sortu dituen gaizki ulertuak direla eta, argitu nahi dugu etxebizitzaren subentzioa txikiagoa izango dela dirulaguntza metro karratuen arabera banatzen delako eta etxebizitza gutxiago izango direlako. Honek ez du esan nahi, ordea, etxebizitzak garestiagoak izango direnik.

Leitza

Gorritaran auzoko festak hilaren 30ean ospatuko dira

Patxi Zabaletak, bere liburuei buruzko solasaldia emanen du ostiral honetan

JOSEBA AZPIROZ

Aurten ere, Gorritarango bizilagunek beraien auzoko festa ospatuko dute. Ekainaren 30ean izanen da (San Pedro biharamuna) eta honako egitaraua prestatu dute: 10,30etan Meza, ondoren herri kirolak -aizkolariak, korrikalariak, harrijasotzaileak eta sokatira-, ordu bietan herri bazkaria, 5etan mus txapelketa, eta 7etatik 12ak arte dantzaldia. 8,30etan berriz, Txintxurrin X. txapelketa izanen da. Iluntzean txokolatea emanen dute.

Patxi Zabaletaren solasaldia

Hilaren 21ean, arratsaldeko 8etan eta Kultur Taldeak antolatuta, hitzaldi-solasaldia izanen da Herri Liburutegian Patxi Zabaletarekin, bere trilogiari buruz -*Ukoreka* eta *Badena dena* da liburuak argitaratu ditu orain arte-.



Ekainaren 22an, arratsaldeko 6etan, Mikelats taldeak antolatutako II. Laburmetrai lehiaketara aurkeztutako lanak ikusteko aukera izanen da. Zine eta bideo munduan mugitzen den jendeak osatutako epaimahaiak emanen ditu sariak proiektzioen ondoren. Argazkian joan den urteko epaimahaiko, antolakuntzako eta partehartzaile batzuk Axe Astiz

Mikel Olanoren hirugarren Debako Udalaren Tene Ipuin Lehiaketan

Mikel Olanoren "Puzzlea" ipuinak hirugarren saria eskuratu du Debako Udalak antolatzen duen Tene lehiaketan. Mikel Donostian jaio zen 1968ko urriaren 7an eta Leitza bizi da gaur

egun, Gasteizen euskal filologia ikasi eta gero. Lan honen aurretik bazuen beste ipuin bat, "*Bizkarrik ez dudana emakumea*", 1995eko Donostia Hiria saria eskuratu zuena.



Mikel Olano

ttipi-flash

- ❖ **Plazaola** aldizkarirako idatzitako aurkezteko epea uztailearen 5ean bukatuko da.
- ❖ **Konzentrazioa** Hilaren 21ean, arratsaldeko 7etan, "Euskal Herria Askatu: Presoak Euskal Herrira" lelopean egindako konzentrazio-rako deialdia luzatu du HBK.
- ❖ **Zalakain musikaria** omendu zuten Korpus egunean Aurrera eta Kornietatik elkarteek. Aitzaki horrekin gozaterik izan genuen herri kirol, musika alai, bazkari dotore eta giro ezin hobez.
- ❖ **Aurreratik Osasunara** Iñaki Perurena, azken urteotan Aurrera futbol talde nagusiko entrenatzailea izandakoa Osasunara joanen da denboraldi honetan. Jubeniletako Oho-rezko Mailako taldearen entrenatzaile laguntzailea izanen da.

© 948-451771

Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu
Eta ezkontzea pentsatu baduzu, harrituko zaitugu!

Basa Kabi

Tel. 51 01 25 . Faxe: 61 09 65
LEITZAko Gaina

• **Istripu Aseguruak**
Gaixotasun edo istripuetan kobratu ahal izateko

Huarte Gotzai 8, beheak • 31880 LEITZA
Tel. (948) 61 09 19
M^a Jesus BARAIBAR

GRUPO VITALICIO SEGUROS

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera ☎ 630735
Irun ☎ (943) 622305

Baztan

Belateko lohiek Bidasoa uhertu dute

Zenbait bizilagunek denuntzia sartu dute Ur Konfederazioan

JOSEBA IGARABIDE

Azken hilabeteotan Bidasoako urak uhertuak datozela eta kezka sortu da bizilagunen artean. Badirudi, Belateko zuloko lohiek zuzenean botatzen direla errefera eta zenbait bizilagunek denuntzia sartu dute Ur Konfederazioan. Nafarroako Gobernuak iturriekin kontaktuan jarri ondotik, "isurketek arriskurik ez dutela" adierazi diote TTI-PI-TTAPARI.

Hiztegi ttipia

Dendariendako Hiztegi Ttipia karriratu du Doike euskara taldeak, euskararen erabiler bultzatzeko egiten ari den kanpainaren barnean.

Tourra

Baztanen barna pasatuko dela eta moldaketak egiten ari dira errepideetan. Izpegiko bidea itxia egon da zenbait egunez eta Herrilan kontseilaria bisitan izan zen ekainaren 10ean.



Ornozko Gaztelune elkarteak antolatutako Rally fotografikoan Lesakako Fidel Ordoki suertatu da txapeladun 19 partehartzaileen artean Josu Inziarte

Almandozko babes ofizialeko pisuen jabeek...

giltzak maiatzean eman behar bazieten ere, arazo batzuk izan dira eta iraila arte ezin izanen dituzte hartu. Hasieran, Balleko Etxeak bajaran m² 57.400 pta kobratzea erabaki zuen baina eraikitzaileek 85.000 petara igo zuten. Prezio esajeratua zenez, abokatuen eskuetan uztea erabaki zuten.



Patxi Cebrianek eta Jon Elizetxek, Elizondoko San Francisco Javier ikastetxe publikoko 6. mailako ikasleek, batak esku pilotan eta bertzeak bertsolaritzan, Nafarroako txapelketa bana eskuratu dute

ttipi-flash

Gaztanberaren Kofradiak

III kapitulua ospatu du igande honean Elizondon. Arizkongo Peio Salaburu EHUKO errektorea, Peio Martikorena Berako Martiko enpresako nagusia izendatu dituzte oho-rezko kide.

127.000

pezetako aurrekontua izanen du Jose Luis Mayor eta Juan Carlos Pikabea margolarien erakusketak iragartzeko katalogoak argitaratzea.

Aritzakungo

bidea Goienetxe eraikuntza enpresak moldatuko du. Lana uztailearen 3a baino lehen akitu beharko da.

Erakusketa

Ekainaren 21etik uztailearen 6ra Juan Carlos Pikabea margolari lesakarraren lanak ikusgai daude Arizkunenean.

Baztango

musika eskolak ikasturte akaberako kontzertua eskainiko du ortzirailean

ONGI PASA HERRIKO BESTAK

IPARLA OSTATYA

- Egunero bokata eta pintxo beroak
- Igandetan salda

Aduana k. • ☎ 453153 • ERRATZU

ALBANTZENA OSTATU-DENDA

Asteburuetan bokatak, pintxoak eta patata bixiak (brabak)...

Albantzenea etxea • ☎ 453112 • ERRATZU

ETXEBERRIA

ostatua • jatetxea • denda

Besta on batzuk pasa

☎ 453013 • ARIZKUN

TABERNA ETXEA

Besta zoriontsuak opa dizkie Arizkun eta Erratzuarrei

Merkatarien karrika 12, ☎ 450007 - DONEZTEBE

Arizkunen Sanjuanak eta Erratzun Sanpedroak ospatuko dituzte

ARIZKUN

Ekainak 21, ortzilerie:
12etan txupinazoa, txistulariak, txalaparta. Txopoa igotzea. **8etan** ezkil-jotze erakusketa. **9etan** baztan zopak. Gaez ASKA taldea.
Ekainak 22, larunbata:
10etan argi soinuak. Haur jokoak. **2etan** haurrendako herri bazkaria. Arratsaldez haur jokoak eta txokoltea. Arratsaldez-gaez JATOR taldea.

Ekainak 23, igandea:

10etan argi soinuak. Pilota partiduak. Mutil dantzak. **4etan** plater tiraketa. **6etan** dantzariak. Arratsaldez eta gaez JATOR taldea. **9etan** suak eta ezkil jotzea. Goizaldeko **3etan** gasna irauten duten guztiendako.

Ekainak 24, astelehena:

6etan ezkil jotzea. **10etan** argi soinuak. **11etan** Meza Nagusia. Mutildantzak. Bertsolariak. **6etan** pilota partiduak. Arratsaldez eta gaez IPARRALDEko taldea. **9,30etan** kontzertua. **10,30etan** mutildantzak.

Ekainak 25, asteartea:

10etan argi soinuak. **12etan** mus txapelketa. **2etan** zikiro jatea **6etan** asto lasterketa eta zerrikume hartzea. Arratsaldez eta gaez Josetxo.



1920ko hamarkadan mutil-dantza Arizkungo Plazan. Txistularia Antonio Elizalde eta atabalaria Joxe Mari Menta

Baztango Folklorea liburutik



Erratzuko gazteek Sanpedroak ederki pasatuko dituzte, badute hortan esperientzi franko eta.

Argazkia: Manttoni BALLARENAK utzia

ERRATZU

Ekainak 27, ortzeguna
8etan ezkil-jotzea. Akordeolariak eta txistulariak. **9,30etan** baztan-zopak Albantzenan.

Ekainak 28, ortzilerie

10etan argi-soinuak. Goizarratsaldez haurrendako gaztelu puzgarriak, karts... **6etan** pilota partiduak mutiko gazteen artean. Ondoren txokolatada Zubipuntan. Arratsaldez eta gaez *Noche y Dia* taldea. Tartean mutil-dantzak. **11etan** kontzertua Zubipuntan.

Ekainak 29, larunbata

10etan argi-soinuak. **11etan** Meza Nagusia. Ondoren aureskua plazan eta Iparagirre akordeolari taldea. **12,15etan** hameketakoa ostatuan. **5,30etan** pilota partiduak. **7etan** Jotak. Arratsaldez-gaez *Noche y Dia*. **11etan** Panpi Portugal Iparlan. Goizaldean xinger-jatea.

Ekainak 30, igandea

12etan plater tiraketa. **6etan** herri kirolak proba konbinatua. Gero dantzariak gaitero eta txistulariekin. Arratsaldez-gaez *Paraiso*. Tartean sari-en banaketa, txistulariak eta gaiteroak.

Uztailak 1, astelehena

12etan pilota partiduak Gorostapolon. **2etan** zikiro-jatea. Arratsaldez-gaez *Joxe Angel*. **4etan** Pobre de mí.

*** ONGI PASA HERRIKO BESTAK ***



Ostatua

Herriko Plaza • ☎ 453118 • ERRATZU

BEREKO BENTA

ostatu • janaridenda • orogarriak

Bokadilloak ematen dira

Izpegi • ☎ 453207 • ERRATZU

DANBORIENTA

Zure eguneroko ogia

☎ 453403 - ARIZKUN

Besta onak opa dizkizuegu

LAU BIDE

Masey Ferguson banatzaileak
 Traktore konponketa eta salmenta

☎ 453425 • ARIZKUN

Urdazubi

Dantxarineako turismo bulegoa eramateko pertsona bat hartuko da

Miguel Migeltorena ekainaren 9an abiatu zen Santiagoko bidea oinez egiteko asmoarekin

ALIZIA OLAIZOLA

Dantxarinean turismorako bulego baten instalaziorako proiektua egin dagoenez, hori eramateko langile bat kontratatzea erabaki du Udalak. Urtean zehar premia izaten denean zabalduko litza-teke bulegoa.

Lehen jaunartzea

Ekainaren 9an, Besta Berri egunean, ospatu ziren lehen jaunartzeak. Meza Nagusi ederraren ondotik prozesioa egin zen, usadioa den bezala. Bortz haur izan dira aurten lehen jaunartzea egin dutenak. Ekainaren 16an, berriz, 27 gaztek sendotza egin zuten.



Eskerretik eskuinalderat Maite Bengoetxea, Alex Irigoien, Leticia Arrieta, Xabier Etxeberria eta Xabier Ariztia, aurten lehen aldiz jaunartzea egin dutenak

Santiagorako bidea egiten ari da Miguel Migeltorena

Miguel Migeltorena herritarra ekainaren 9an abiatu zen Santi-

goko bidea oinez egiteko asmoarekin. Santiagora hilabete ba-

ten barnean ailegatzeko asmoa du, dena ongi joanez gero.

Zugarramurdiko gaupasa

MARGARI ETA KORO

Igande honetan, ekainak 22, ospatuko da Zugarramurdiko lezeetako gaupasa, aurten ere musikaz eta ekitaldiz betea.

11etatik 12etara *Rigor Mortis* taldea arituko da. 12etatik 1etara *Markeliñe* antzerki taldearen emankizuna izanen da eta ondotik rock kontzertua *Skunk* taldearekin. Bi orduetan Zubietako joaldunak aterako dira eta gero dantzaldia izanen da *Irrintzina* taldearekin. Lezeetan sartzeko prezioa 1.000 pezetakoa izanen da eta urtero bezala, jende andana bat espero da.

Oronozko San Martin Eskola

MEKANOGRAFIA IKASTAROA

(ikus-entzunez egiten dena)

Hasiera: Ekainaren 24a Bukaera: Uztailaren 31. Iraupena: 50 ordu
Ordutegia: Astegunez: goizez 10-11,15 eta 11,15-13,15 - arratsaldez 16-17,45
Argibideak San Martin Eskolan • ☎ 59 20 06



Pierresenea

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI



UDA HONETAKO EZKONTZETAKO
KANPAINA BERRIA HASIA DAGO

KALE NAGUSIA 4 - TEL ETA FAX: 45 08 25 DONEZTEBE
SANTIAGO KALEA 40 - TEL: 58 01 55 ELIZONDO

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

UDAKO ARROPAK

eta

BAINUJANTZIAK

ERTZILLA

ALBAITARITZA

KONTSULTA

Txakur eta katuendako

ORDUTEGIA

10etatik 1etara eta 4etatik 5etara

Larunbatetan 10etatik 1etara

Santiago 30, ☎ 580627

Larrialdiak: ☎ 580762

ELIZONDO

SARA

Laugarren Trial txapelketak 72 moto bildu zituen

Ekainaren 9an iragan zen Akoka eta Atxuria inguruan Akitania lurraldeari loturiko txapelketa

MIXEL ETA JACQUELINE

Akitania lurraldeari loturik dagoen laugarren trial txapelketa ekainaren 9an iragan zen Akoka eta Atxuria inguruan. Hirutan hogeitamabi moto arrokaz arroka ibili ziren eta lehiakideak lau mailatan banatuak zeuden. Egun hau Iparraldeko Trial Club Basque elkarteari doakio eta eguraldi ona partaide, jende aunitz etorri zen ikuskizunean parte hartzera.

Uda gain gainean dugu

Igerilekua hilabete hunen 9az geroztik idekia da igande eta asteazkenez. Uztaitetik

goiti egunero zabalik izanen da. Igerika ikasteko parada eskainia da ere, haur eta helduentzat eta xehetasun gehiagoren ukaiteko piszinara agertu behar da edo Pascal Lagoutte igeri zainari deitu telefono huntara: 59 54 20 97

Euskal Herria zuzenean

Piztu (abertzale elkarte) eta Irulegiko Irratiak gaitzeko rock jaialdia antolatzen dute ekainaren 28, 29 eta 30ean Arrosan. Eskualde huntarako sartze txartelak salgai dira Saran Herriko Etxeko edantegian 100 libretan edo 2.500 pezetan. Sartze hau hiru egunetarako balios da.

Pipo Garbiso, Trial elkarteko kidea eta Akitaniako txapeldun ohia



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

M^{re} Dolores Miñana
TOPOGRAFOA

NEURKETA • PLANOAK



Lur neurketak, Luberriak
Plantazioak, etab...

☎ 580143 - 989.445986
Santiago 68, 3. esk. ELIZONDO

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19
64130 SARA



ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENTZIA

■ Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bititza aseguruak

■ Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

■ Aholkularitza fiskala

• Errenta Deklarazioak, IVA...

■ Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

■ Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxe: 580804 - ELIZONDO

EZKONTZAK

Juan Ignacio Zaldain Garaiburu eta **M^a Mercedes Iraizoz Iñarrea**, Elizondokoak, maiatzaren 11n.

Ramon Jose M^a Martiarena Bergaretxe eta **Marta Etxeberria Mendizabal**, Donostiakoak Elizondon, ekainaren 1ean.

Jean Pierre Gorosurreta eta **Marie Helene Txapartegi**, Sarakoak, ekainaren 8an.

Pedro Maria Telletxea Ordoki eta **Ana Isabel Igoa Portu**, Lesakakoak, ekainaren 1ean.

Fernando Artieda Irazoki eta **Maria Vila Errandonea**, Berakoak, ekainaren 1ean.

JAIOTZAK

Aitor Gogorza Goikoetxea, Leitza-koa, ekainaren 5ean.

Unai Apezetxea Iribarren, Doneztebekoa, maiatzaren 24an.

Olaia San Miguel Mitxelena, Doneztebekoa, maiatzaren 30ean.

Adriana Mitxeo Zozaia, Doneztebekoa, ekainaren 5ean.

Uxo Mutuberria Mendikoa, Nartartekoa, maiatzaren 20an.

Ibai Maizterrena Larregi, Azpilkuetakoa, maiatzaren 25ean.

Emma Sathicq, Sarakoa, ekainaren 8an.

Benoit Devallet, Sarakoa, ekainaren 26an.

HERIOTZAK

Martin Etxeberri Ariztia, Elbetekoa, maiatzaren 27an, 98 urte.

Andres Sansiñena Amorena, Elizondon, ekainaren 7an, 72 urte.

Elias Camino Galardón, Zugarramurdikoa, ekainaren 9an, 47 urte.

Jose Manuel Oiartzabal, Berakoa, ekainaren 4an, 79 urte.

Eskolastika Aleman Etxenike, Etxalarkoa, ekainaren 7an, 79 urte.

Miguel Anton Guereño, Aresokoa, ekainaren 9an, 75 urte.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA** 3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO** polit bat oparitzen diegu. Amendako "Está creciendo" liburua daukagu.

IRUÑEKO KUTXA
Iruriko Uda Auzoak - Kutxa

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

BEREAU

jatetxea • Hotela

Lesakako Bidegurutzean
 Tfnoa: 63 73 82 • LESAKA



HERRIKO OSTATUA

jatetxea

Lagun artean
 goxo-goxo
 egoteko
 leku egokia

© 635290
ETXALAR



Miren Luzia Irazoki Fernandez

*Nere hartzetan
 itzaliko den
 azken antsia
 bertze batenetan
 loratuko den
 leben irria izanen da*

Etxalarko ikasleek

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta	
Urgentziak.....	112/088
Osasun Zentruak	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka	637428 / 637336
Leitza	510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak	
Nafarroako Ospitalea	102100
SSko Urgentzi	
Zerbitzua	246750
Virgen del Camino	
Erresidentzia	109400
Gurutze Gorria	226404
Gipuzkoako Ospitaleak	
Irungo ospitalea	614600
Gipuzkoako ospitalea	460299
Erresidentzia	453800
Anbulatorioak	
Irun	630264 / 621106
Anbulantziak	
Oitz	450242 / 450805
DYA	
Lesaka	
(Larrialdiak)	(943) 464622
Doneztebe	
(Larrialdiak)	171717
FUNERARIA	
Doneztebe	450475
Elizondo	580924
Lesaka	637404
Suhiltzaileak	
Oronoz-Mugairi	592255
Garraioak	
Bidasotarra	631150
Baztanesa	580129
Leitzaran	515018
Aberiak:	
Iberdrola	450335 / 450336



Baztan, Bortziriak eta Malerrekako alkateak Luis Ibero, Herrilan Kontseilariarekin bildu ziren eta errepedeen egoera txarra salatu zuten Aitor

Errepideak behingoz moldatzea eskatu diote berriz alkateek Herrilan kontseilariari

Luis Ibero kontseilariak Herrilan Departamentuaren egitasmoak agertu zizkien

Behin eta berriz egindako eskaerari erantzunez, Luis Ibero, Nafarroako Gobernuako Herrilan Kontseilaria Bertizera etorri zen eskualdeko alkateekin hitzegitera. Mahai-gainean gai bakarra zeukaten: N 121 A eta B errepideek duten moldatzeko premia larria. Eta horrekin batera, moldatzeko orduan lehentasunak markatzeko eskaria.

BEHOBIA-ETXALAR BIDEZATIARI LEHENTASUN OSOA


Lehendik hartutako eskakizunari eutsiz, eskualdeko alkateak bat etorri ziren «lehentasun osoa» Endarlatsa aldeko bidezatiarentzat eskatzera-

koan. Kontseilariak hitzeman zien egon litezken alternatiba desberdinen azterketa lehenbailehen egitea manatuko duela, eta horrela, traza-tuaren afekzioak ikusi ahal izanen direla.

Bertzalde, aurrean bertan Olague eta Arraiozko saihebidetuen obrak hasiko dira eta Zozaia-Donztebe bidezatiaren proiektua «*dexente aurrreratua*» dagoela adierazi zuen Ibero kontseilariak.

Belate eta Almandozko tunelak ibilgailuentzat irekitzerakoan, trafikoak %30ean areagotuko dela uste du te alkateek, eta horrek arazo larriak sortuko dituela zatirik estuenetan.

OTSONDO 602



Otsondo 602 musika talde baztandarraren maketa berria salgai zonako ostatuetan

Pottoka kantari amaiurtarrak TTPI-TTAPAREN 178. zenbakian erran zuena bete egin da eta dagoeneko salgai dago Otsondo 602 taldearen lehen maketa. Doinu tropikalak, rocka, musika afrikarra... denetarik dago maketak biltzen dituen sei kantuetan. Taldea bartz lagunek osatzen dute; Kantuan Pottoka, kitarrarekin Mikel eta Zabalza (azken honek aho-tsa ere jartzen dio 'Herri puta maitea' kantuari), Aitor (*Jalisko*) baxua eta aho-tsa laguntzen, eta azkenik, Jaime bateria jole eta honek ere aho-tsa laguntzen du.

B RADIO BIDASOA

CANAL

banatzailea

Tfnoa. eta Faxa: 630 377
BERA

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

muñeca de Trapo



Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

Baztango emakumezkoen eskubaloi taldea Nafarroako Liga eta Kopa txapelduna

✗ Lehia gogorra izan dute Beti Onak eta Oberena taldeekin

✗ Maila tikiagoetan lau taldek osatzen dute Baztango taldearen harrobia

Baztango kirol taldeko emakume senior taldeak Nafarroako Liga eta Kopa eskuratu ditu aurten, Beti Onak eta Oberena taldeekin lehia gogorren aritu eta gero. Ligan, hiru taldeak puntuz berdinduak bukatu zuten txapelketa, baina Baztangoak golen aldeari esker gailendu ziren. Beti Onak taldearen kontra jokaturako kopa txapelketaren finalean ere, partidua eta luzapenaren bukarara berdinduak ailegatu ziren. Bapatean, lehen gola sartzen zuenak eramanen zuten txapela eta hemen ere Baztangoak nagusi.

Txapeldunak izaki, Oreretan jokatu zuten sektorea, bertze probintziatiko txapeldun hauen aurka: Euskadiko Ereintza, Santande-



Eskubaloi taldeak denboraldi bikaina burutu du, liga eta kopa irabaziz

Argazkia: Mena

rreko Clubasa, Galizako Pescanova Chapela eta Katalunyako Unibertsitari taldeak. Fase honetan bi partidu galdu zituen Baztangoak, bat berdindu eta ber-

tze irabazi. Denboraldiko balantzea egiterakoan beraz, gustora gelditu dira, nahiz eta Joxe Iturzaeta entrenatzaileak dioenez, «talde honek aunitzez

gehiago eman behar du. Lehen urtea dut talde honekin, jubeniletatik pasatu dira batzuk eta hobetzen joanen da».

Gibeletik harrobi bi-

kaina dute Baztango neskek: jubenetan eta kadetetan ekipo bana eta infantiletan bida. Mutilen taldeak berri, desagertu dira, jende falta dela eta. ●

Banan Bana

Jokalaria	Postua	Adina
M ^a Loren Eugi	Atezaina	27
Ana Franzesena	Atezaina	19
Cristina Urtasun	Hegalekoa	25
Begoña Argain	Hegalekoa	25
Karme Arriada	Hegalekoa	18
Rosa Baldanta	Hegalekoa	25
Idoia Argain	Hegalekoa	19
Itsaso Salaburu	1. lerroa	18
Pake Franzesena	1. lerroa	25
Gurutze Aizpuru	1. lerroa	27
Ana Iturralde	1. lerroa	18
Ainhoa Goñi	1. lerroa	18
M ^a Jose Mena	1. lerroa	25
Belen Urrutia	Pibotea	26
Izaskun Garate	Pibotea	22
Joxe Iturzaeta	Entrenatzailea	
Oskar Frias	Delegatua	
Mariano Eseberri	Delegatua	

Joxe ITURZAETA, entrenatzailea:

«Defentsa ona eta kontraeraso azkarra dira gure ezaugarriak»

■ **Etorkizunerako zein asmo dituzue?**

□ Datorren urtean berri ere liga eta kopa irabazten saiatuko gara eta sektorean ea aurten baino gehiago egingen dugun. Aurten ez ginuen jokatu dakigun bezala, gaizki ere ez, baina gauza batzuk hobetu behar dira. Postua baino inportanteagoa da hobekiago jokatzea. Halere, bertze

taldeak zein diren ez dakizu, hurbiltasunagatik egiten baita, eta ez dizut erraten ahal nola ibiliko garen.

■ **Nola definituko zen nuke zure taldea?**

□ Defentsan ongi ibiltzen gara eta kontraeraso azkarra dugu. Gehien hobetu behar duguna eraso posizionala da, bertze defentsa osatua dagoenean. Hori lortzeko, jo-

kalari bakoitzak baliabide gehiago hartu behar ditu eta hori eginez gero, taldeari bertze soluzio batzuk eskaintzen zaizkio.

■ **Zer nota jartzen diozu egindako lanari?**

□ Ni kontent nago, batez ere jokalarien jarrerarekin. Entrenatzea beti etorri dira, batzuk Iruñetik eta guzti. Orokorrean, zazpi bat paratuko nuke.



Baztan-Errekako laxoa txapelketaren finala igande honetan jokatuko da

Arraioz, Oitz, Irurita eta Doneztebeko taldeek jokatu dute hamazazpigarren edizio honetako finalerdiak

Arraioz, Oitz A, Doneztebe A eta Irurita A taldeek azken bi igandetan jokatuko dituzten finalerdietatik aterako dira igande honetan, ekainak 23, eguraldiak laguntzen badi, jokatuko den Baztan-Errekako XVII. laxoa txapelketako finalerdiak.

Doneztebe A izanen da faborito nagusia, gaur egungo txapeliduna izateaz gain lehen fasean bera gailendu baita. Finalerdian gainera, Arraiozen kontra jokatuko dute eta hauek Elizondoko plazan jokatuko behar izan dute aurtengo txapelketa. Bertze finalerdia berdinuagoa iduri du, Irurita eta Oitz baitira, Doneztebekin batera txapelketa noizbait irabazi duten talde bakarrak. Tiburtzio Arraz-



Finalak ikusle aunitz bilduko ditu Zaldua

toa, Laxoa elkarte kidearen ustez, «betiko laukotea ateratzen badi, Doneztebek txapelketa irabazteko au-

ker a haundiak ditu, baina niri, pertsonalki, gustatuko litzaidake Arraioz suertatzea txapelidun, duen afi-

zioagatik eta laxoa erdi hilean egon zenean ere, bertan mantendu zelako».

BALANTZE POSITIBOA

Zazpi taldeek liga modura jokatu dute aurtengo lehen aldiz eta «esperientzia positiboa» izan da Laxoa elkartearen ustez. «Joku aldetik txapelketa ona ikusi dugu, nahiz eta jendea bertze urteetan baino guttiago bildu. Finalerdietan eta finalerdietan, beti bezala, jende gehiago izanen da». Arazo nagusia aurtengoan, plaza eskasia izan da. «Arraioz eta Oitzko plazetan lanak egiten ari dira eta honenbertez, partidu guztiak Doneztebe Irurita eta Elizondon jokatuko behar izan dira». Datoren urterako afera konpontzea espero dute.

Juan Carlos Garro beratarra nagusi Nafarroako mendi bizikleta txapelketan

OSKAR TXOPERENA

Espero zen bezala, jaun eta jabe izan genuen Juan Carlos Garro beratarra Obanosen jokatutako Nafarroako mendi bizikleta txapelketan. Hurbiletik jarraitu zion txirrindulari bakarra Andoni Olabarria izan zen, baina azkeneko kilometroetan gibelera uztea lortu zuen. Proba berean bigarren gelditu zen Patxi Irazoki igantziarra junior mailan.

Euskadiko txapelketan ordea, etsai haundiagoak aurkitu zituen Garrok, Orbea ekipa osoaren aurka aritzea tokatu zitzaion eta. Hirugarrekin postuarekin konformatu behar izan zuen Olabarria eta Lezaunen gibelatik, laugarren izan zen Mujika bezala, Orbea taldekoak hauek biak ere. Azkeneko kilometroak errueda lehertuarekin egin behar izan zituen gainera.

Orain, Sierra



Juan Carlos Garro lanean Arg.: Oskar

Nevadan jokatuko den estatu txapelketari begira daukagu, Atlantara

joateko dauzkan posibilitate apurrak aprobetxatu nahirik.

❖ **Erratzuko I. Mendi Duatloia**
Ekainaren 29an burutuko da Erratzun I. Mendi Duatloia. Partehartzaileek 4 km. laisterka, 14 km. bizikleta gainean eta azkeneko, bi kilometro terdi laisterka egin beharko dituzte. Proba 12,15etan hasiko da eta izen ematea ordubete lehenago zabalduko da.

❖ **Ezkurra Memorialaren**
VI. edizioa maiatzaren 9an hasi zen. Txaruta elkarteak antolatutako txapelketa honetan 140 bat pilotari ari dira, zazpi maila ezberdinetan. Partiduak astelehen eta asteazkenetan jokatzen dira, atsaldeko 8etik aitzinera. Zenbait ortzegun eta larunbatetan ere jokatzen dira, bertze ezinezkoa baita tenerez ibiltzea. Finalak uztailaren 6an jokatuko dira, goizez eta arratsaldean Donezteben.

❖ **Doneztebeko Crossa**
heldu den igandean, ekainaren 23an burutuko da. Bertze urtetan bezala, Erreka kirol taldea arduratuko da antolatetaz. jakin izan dugunez, bada lehia bizia inguruko pilotarien artean, azkenak iristen direnek bertzei afaria ordaindu beharko baitiete. Pilotarien artean, J. Urrutia, U. Apeztegia, K. Leiza, M. Goñi, P. Ordoki, R. Saldias

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

ARIZKUN

► **Ekainaren 5etik 9ra** Xehetasunak 21. orrialdean.

ALTZATE

► **Ekainaren 14tik 16ra** Xehetasunak 9. orrialdean.

GASNA FERIA

ETXALAR

► **Ekainaren 9an** Gasna eta Artisau Feria. Goizeko 11etan emanen zaio hasiera V. Altxata Gasna Lehiaketari.

ERAKUSKETA

BERTIZ

► **Ekainaren 30a bertate** zabalik dago Bertizko Natur Parkeko Gurditegi eta Jauregiko erakusketa aretoan 'Bioaniztasuna' izeneko erakusketa goiz eta arratsaldean.

ELIZONDO

► **Ekainaren 1etik 13ra** Arizkunenea Kultur Etxean Koldo Azpiazu eskuturagilearen erakusketa. Orduetgia: atsaldako 7etatik 9etara. Besta egunetan itxia.

ERREZETA



Bakailua piper berdeekin

Osagaiak Pertsona batendako

• 2 bakailu xolomo • 2 piper berde • tipul erdia • 42 baratxuri pikor • 1ºeko oliba olio

Bakailua 48 ordu lehenagotik jarri behar da beratzen ur ausar-kirekin. Egunean 3 edo 4 aldiz aldatu ura. Udan, komeni da bakailua hozkailuan edukitzea ba-daezpada ez mintzeko.

Prestatzeko modua

Kazula batean olio jarriko dugu berotzen. Bitartean bakailua ongi xukatuko dugu eta irinean pasatu. Olio epeldu denean, bakailua jarriko dugu azala goiti duela. Ondotik tipula, piperra eta baratxuriak gehituko ditugu. Tipula xerra finetan xehetuko dugu eta piperrak 'juliana' eran.



Cecilia BELARRA

Belarra
Jatetxekoa
• DONEZTEBE

Su ezitan eduki egin arte, 15 minutu inguru. Egina dagoenean bakailuari buelta eman eta serbitzeko prest dago.

On dagizuela!

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

• **Zerrikumea** (20 kilokoa): 7.200 pza.
• **Zerri gizona** (95-100): 235 pza./kilo
• **Zerramak**: 120-130 pza./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

• **Aretze gizenak**:
• **Idixkoak**: Pzta./kg. Kanal Extra540
1.koa 510
2.koa480

• **Urruxak**: Pzta./kg. Kanal Extra550
1.koa 520
2.koa480
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urru-xentzako.
• **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruak 18.000 eta idixkoak 27.000 Pzta.
Mestizoak: urruak 27.000 eta idixkoak 35.000 Pzta.
Behi zaharrak: Behi nabar gizona: 360 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 420 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA MINDEGIAK...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza
• **Bertako sagarrondoak** 950.
• **Udareondoak** 950 pza.
• **Gereziondoak** 1.050 pza.
• **Aranondoak** 1.050 pza.
• **Muxika** 880 pza.
• **Urritza** 880 pza



❖ LANDAREAK ❖

• **Porruak** zientoa 400.
• **Tipulak** zientoa 800.

ETXANDI
TXOKO
erretegia
Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

koxkonta



Ezkontza,
bataio eta
bileretarako
leku egokia

Deitu
emeserbak
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

JAKIN BEHARREKOAK

Etorkizuneko

Telebista

Definizio haundiko Telebistaren proiektua gehiegi aurreratu gabe geldituta dagoenean, heldu diren aldaketak 16:9 formatoa eta Palplus sistematik heldu zaizkigu.

Lehenik eta behin, argi utzi behar da *Palplus* sistema arras bateragarria eta konpatiblea dela gaur egun ditugun telebistekin. Formatoa da aldatzen dena. Zabalagoa egiten da ikusmena lasaitu eta erlaxatzeko eta begiak ez daitezen hainbertze giltzatu pantaila 'estu' batean. Zentzu horretan, pantaila berri honek badu zerikusirik zine aretoetako pantailak duten formatoarekin, antzerakoak dira.

KOLORE GARBIAGOAK ETA SOINUA, ZINEAN BEZALAKOA

Palplus sistemak kolore garbi eta zehatzagoa du. Eta soinuari dagokionez, *Dolby Surround ProLogic* sistema erabiltzen du. Hortarako, hiru altabots ditu aitzinal-



Aurten, koadro honetan ageri diren egunetan, toki hauek daude eskaintzan.

dean (bat erdian, eta ezkereskuin bertze bana), eta bi altabots gehiago atzeko partean.

Guzi hoiekin, zine aretoetan egoten den soinu efektuaren antzerakoa sortzen

Hitz batean laburbilduz, 16:9 telebista formatoak Palplus eta Dolby Surround ProLogic sistemarekin horniturik, zinea etxera ekartzen digu.

da. Hitz batean laburbilduz, 16:9 telebista formatoak *Palplus* eta *Dolby Surround Pro Logic* sistemarekin horniturik, zinea etxera ekartzen digu.

TAMAINAK ETA PREZIOAK

Normalki, tamaina bat baino gehiago daude 32" eta 24"ren artean. Salbuespen gisa, bada telebista markaren bat 16"ko telebistak egiten dituena.

Prezioak ere aldatu egiten dira marka eta tamainaren arabera. Nolanahi ere, tamaina haundikoak 250.000 Pta. eta 350.000 Pta. artean dabilta (10.000 eta 14.000 Libera artean).

AGENDA EGUNEZ EGUN

MENDI IRTEERAK

MUGAIRI

► **Ekainaren 23an** Baztango Haranari Itzulia. Almandoz, Berroeta, Aniz, Ziga, Mugairi, Arraioz, Irurita, Gartzain, Lekaroz, Azpilkueta, Amaiur, Erratzu, Arizkun, Elbete eta Elizondo.

IKASTAROAK

ELIZONDO

► **Ekainaren 17tik 28ra** Sendabelarrei buruzko ikastaroa. Izenematea ekainaren 14a baino lehen egin behar da Kultur Etxean.

OSPAKIZUNAK

DONEZTEBE

► **Ekainaren 28an** Arkupeak elkartaren urteko besta. 85 urte eta urrezko ezteiak betetzen dituztenak omentzeaz gain, elkartearen 10. urteurrena ere ospatuko da.

GUARDIAKO BOTIKAK

► **Ekainaren 17tik 23ra** Bera, Ituren, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

► **Ekainaren 24tik 30era** Etxalar, Narbarte, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

► **Uztailaren 1tik 7ra** Arantza, Doneztebe, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

BORTZIRI
ASISTENTZIA TEKNIKORAKO ZERBITZUA
Tfnoa: 63 10 91
Iturlandeta, 1 • 31780 BERA

CANAL

Televés

GISA GUZIETAKO ANTENEN INSTALAZIOA:

- Kolektiboak eta banakakoak
- Parabolikoen instalazioa 50.000 Ptatik aitzinera.
- Hari-musikalen instalazioa

Aurrekontuak konpromisurik gabe eskatu

ETXEBIZITZAK

LEGASA. 100 m² erabilgarri dituen pisua salgai, arras egoera onean. Baratzea eta garajea. Aukera ona. ☎ 234830.

BAZTAN. Borda erosiko nuke. ☎ 306502.

BERA. Pisua salgai. ☎ 630686. Arratsetan.

ELIZONDO. Pisua alokairuan emanen nuke, hilean 20.000 pezeta. ☎ 451518.

OITZ. Txaleta salgai. ☎ 450227.

DENETARIK

Kartelak, buzoiratzeko pa-perak, bisita txartelak, Faktura taloiak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188.

LESAKA. 49,5 m²ko lokala salgai, Bittiria karrikaren 59 zenbakian. ☎ 637938 (Inma).

BERA. Garajea salgai Legia karrikan. ☎ 630686. Arratsetan.

BERA. 89 m²ko bigarren pisua salgai, Iturlandeta 6an, 'Moliner' blokeetan. Prezio negoziagarria. ☎ 630455.

Borda salgai, Leitza inguruan. Prezio negoziagarria. ☎ 306502.

LEKUNBERRI. 220 m²ko lokal berria salgai, herria-

ren erdian. Edozein negoziotarako egokia. Salmenta zuzena. Prezioa eta baldintzak negoziagarriak. ☎ 943.363935.

LESAKA. Bi garage plaza alokairuan emanen nituzke, Albistur 63an. ☎ 637820

Sukalde kalefaktorea salgai, Lakunza markakoa. Ekonomika bezala erabil daiteke. Labea ere badu. Prezio onean. Berria dago. ☎ 610961.

Zilarrezko katea eta amnistiaren aldeko kolgantea galdu dut maiatza erdi aldera Berako Eztegarra karrikan. ☎ 631338 (Ainhoa).

150 litroko esne-tankea salgai, hagitz egoera onean. 40.000 pezeta. ☎ 637236 (arratsetan).

Betaurreko batzuk aurkitu dira Berako Zia auzoan, baserri baten ondoan. ☎ 630116.

Pertsona bat edo bi behar dira Leioan pisua osatzeko. ☎ 630579.

Moble erabiliak edo antzinakoak erosiko nituzke. Baita gurdi gurpilak eta nekazal tresnak ere. ☎ 234830 (Agirre jauna).

AZIENDAK

Oilagor zakurrak salgai, urtebetekoak. Setter irlandesa eta pointer arrazakoa. ☎ 989.702875 (Alfontso Oartzabal).

Husky siberiar arrazako txakur arra salgai, urtebetekoa. Jendearekin ongi hezia. 45.000 pezetatan. ☎ 514040.

Behorra salgai, arraza garbikoa. ☎ 637951.

Grundig **telebista** salgai, 25 pulgadakoa. ☎ 637217.

IBILGAILUAK

Lada Niva SS-AS matrikuladuna salgai. ☎ 631114 edo 943.218583.

MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Ford Fiesta 1800 16v, NA-AF Suzuki labor bat Kotxeen txapizierak garbitzen dira eta ezkontzetarako prestatzen dira.

Peugeot 205 SRD salgai, SS-X matrikuladuna, 5 ate, gurpil berriak, txapa eta motorra primeran. Beti garajejan gordea. Prezio onean.

AUTOI SAMPI ARAGON

Bigarren eskuko autoak, furgonetak eta mendiko autoak erosiko nituzke. Eskura ordaintzen da.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

☎ 943.283431 (gaueko 8etatik aurrera).

Rieju MR80 motoa salgai, egoera onean. ☎ 635196.

LANA

Berako neska batek udan haurrak zaintzen lan egiten luke. ☎ 630153 (Amaia). Arratsetan.

DONEZTEBE AKADEMIA

INFORMATIKA IKASTAROAK

- Windows
- Testu Tratamendua
- Kalkulu Orria
- Datu Baseak

Udan, ikastaro Trinkoak

☎ 451841 • 908-778653
Parrokia 5, 2.
DONEZTEBE

Trikitixa jotzen dugun bikote goizuetarra gara. Zure ospakizunetara joateko prest gaude. ☎ 514040.

42 urteko emakume batek lan egiten luke etxeak edo bulegoak garbitzen, umeak edo adineko jendea zaintzen. Euskalduna, Malerreka aldean. ☎ 306502.

AGURRAK

Elizondoko Idoia M.: zorionak zure 19. urtebete-

tzeagatik (maiatzak 23a). Nola zegoen tarta? Kontuz nori erakusten dizkiozun argazkiak. Suerte on azterketekin. Koko (Bera).

Granadan dauden Raket eta Guillermoni: goraintziak Erratzuko Maite, Joxe eta Manttoniren partez.

Andoni Irazokiri: Shailaren lehengusu bat naiz. Eskatu berari berak dakien zerbitu eta ez haserretu mesedez, berak ez du zerikusirik. L.Gren partez.

Erratzuko M^e Jesuseri: zorionak zure urtebetetzearan (ekainak 30). Kontuz txanpainarekin eta espero dugu zure gonbitea. M.M.M.

Malerrekako Beltxari: Zorionak zure urtebetetzearan. A ze eguna pasatu behar dugun. L.M.I.

IGANTZI Oihan Enkantea

Igantzi Udalak, plegu itxiaren bidezko enkante publikoa iragartzen du, ondoko oihan aprobetxamendu hau saltzeko:

LOTE BAKARRA: 1.177 haritz amerikano, platano, gaztainondo eta arkazia, Pionborda eta Harrobi izeneko alderdietan, 838 metro kubiko zur egiten dutenak. Hasierako prezioa: 7.741.500 pezeta.

Enkantean parte hartu ahal izateko Enpresa Sailkapen Agiria eta Udal Diruzaintzan hasierako prezioaren %5, behin-behineko fidantza gisa, utzi izanaren gordekina aurkeztu behar dira.

Proposamenak, udal Idazkaritzan aurkeztuko dira EKAINAREN 28an eguerdiko hamabiak baino lehen. Pleguak hurrengo laneguneko eguerdiko hamabietan irekiko dira.

Baldintza tekniko eta ekonomiko-administratiboan pleguak Udal Idazkaritzan daude interesatuen eskura.

Igantzi, 1996ko ekainaren 4an.

Alkatea, Juan Jose Txoperena.

ttipi-ttapa


6.200 harpidedun
21.000 irakurle

ttipi-ttapa
Zure klienteek
ikusiko dute
zure publizitatea



Bi urtetik behin autoa aldatu eta erdia ordaindu

Multi Opción



ZALAIN MOTOR

INFORMAZIOA

Tfnoa. eta Faxa: 948 - 631157 • Tfno. mugikorra: 908 - 778023 • BERA



Haize Egokitua dohainik edo 150.000 Pta.ko deskontua

Ero batzuk zaretela diote. Ez zaretela segundu bakar bat ere geldirik egoten, egun osoan harat honatean zabilzatezela. Jende gazteak sekulako sasoia eta buru-arina izaten duzuela.

Bainan zuk badakizu ez dela horrela. Zure lagunak dira duzun gauzarik garrantzitsuen eta ez zenituzke galdu nahi ezta deusengatik ere.

Horrengatik aukeratu duzu Polo: saihets indartuak, ABS, Airbag bikoitza, guzia agertzen duen atzeranzko ispiua, direkzio-zutabe teleskopikoa... Ekipamendu, erosotasun, ahalmen eta zabaltasun haundienari ukorik egin gabe, gozo-gozo egon zaitezten.

Zeren zure lagunak, zure Poloak eta zuk zeronek bide luzea duzue aitzinean.

Badago Polo bat 1.259.000 Ptatik. aitzin

SAMPI ARAGON

Leitzako errepidea • © 450354 / 450759
D O N E Z T E B E

VW Polo
Zure Polo eta zu



BESTA ZORIONTSUAK !!